

K...eta! Kitto!

2018-III-16

1050 zkia.



Carlos Suarez
MENDI-ABENTUREROA

“Arriskua laguna dugu”

GARBITU (30 min)
- Ideala (9 kg.) 5€ / 4€
- Super (20 kg) 9€ / 7,5€

LEHORTU (30 min)
- Ideala (14 kg.) 4€ / 3,5€
- Super (21 kg) 5€ / 4,5€

Zure jaboia eta leungarria
ekarri dezakezu
edo gureak erabili!

Ordubetez zure erroa garbitu eta sikatuta

**Ekarri zure
mantak eta
edredoiak
garbitzera
gorde
aurretik**

GARBITEGIA



Speed Queen.

autozerbitzua

Ego-Gain, 15
bus geltoki ondoan

astehenetik igandera

08:00-22:00

ESKERRIK ASKO bezero guztioi

2. urteurrena



IRAZABAL

clínica dental



Ainhoa Zulueta
Doktorea

Odontologian Lizentziatua.
Euskal Herriko Unibertsitatea.
Unibertsitate Adua Aho Kirurgian,
Periodontzian, inplantologian.
Leongo Unibertsitatea.
Diplomatua Aho Kirurgian.
Bartzelonako Unibertsitatea.
Hortz-Estetikan Diplomatua.
Madrilgo Unibertsitate Konplutentsea.
Hortz-Estetikan Diplomatua.
Autran Institutoa. Bartzelona.
Etengabeko Formakuntza.
New York-eko Unibertsitatea.
Oklusioan Graduondoa.
Anibal Alonso Doktorea.

Astelehenetik ostiralera:
8:00etatik **22:00**etara
Zapatuetan:
10:00etatik **14:00**etara

Familiaren Osasuna

**Zure familiaren ahoaren
osasunaz arduratzen garelako**

Gutaz fidatu eta jarrai iezaguzu

f Facebooken: Clínica Dental Irazabal **t Twitteren:** @Clinicalrazabal



FINANTZIAZIO BEREZIA. Abantaila ekonomiko handiak eta finantziazio ezin hobeak. **GALDETU**



IRAZABAL
clínica dental

Julián Etxeberria, Nº 12 - 1º - **20600 EIBAR**
Tel.: 943 20 85 52 - www.clinicairazabal.com



Euskara Elkartea

ARGITARATZAILEA:

...eta kitto! Euskara Elkartea.

HELBIDEA:

Urkizu, 11. 20600 Eibar

TELEFONOAK:

943 20 67 76 / 943 20 09 18.

FAXA: 943 20 28 72.

ASTEKARIAREN E-MAILAK:

erredakzioa@etakitto.eus
komunikabideak@etakitto.eus
publizitatea@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK:

elkartea@etakitto.eus /
normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA:

Ana Aizpurua, Itziar Albizu,
Ekhi Belar, Jose Luis Gorostegi,
Silbia Hernandez eta Uxue Igarza.

ADMINISTRAZIOA:

Marisol Uriarte.

KOORDINATZAILEA:

Ana Aizpurua.

ERREDAKZIO-BURUA:

Silbia Hernandez.

DISEINUA ETA

MAKETAZIOA: J.L. Gorostegi.

ARGAZKI ARLOA:

Maialen Belaustegi
eta S. Hernandez.

HIZKUNTZA ARDURA:

Juan Andres Argoitia
eta M. Aranberri.

PUBLIZITATEA:

Itziar Albizu eta Belen Ulazia.

TELEFONOA: 943 20 67 76.

AZALEKO ARGAZKIA:

Carlos Suarez

BANAKETA-ARDURADUNA:

Ainhoa Luz.

TIRADA: 8.150 ale.

INPRIMATEGIA:

GERTU koop. (Oñati).

COPYRIGHT-A: ...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA: SS/430/92.

ISSN: 1132 - 1679

(*...eta kitto!* k ez du bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien
erantzunkizunik)



Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak
eta Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza
Politika Sailak diruz lagundutako aldizkaria



EIBARKO
UDALA



GIPUZKOAKO
FORU ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA)

Eskutitzak

– Gure greba zapaltzea salatuz –

Martxoaren 8rako Mugimendu Feministak deitutako greba egunarekin bat egin genuen Iturburuko jangelako begiraleok aurreko eguenean. Eibarko kaleetan gure aldarria ozen oihukatu genuen arren, badirudi Iturburura ez zela oihartzunik iritsi.

Emakumeok jasaten dugun lan gainkarga azalarazteko eta, gainera, jangelako begirale guztiak emakumeak garelako kontuan hartuta, gure lanpostuak hutsik lagatzea erabaki genuen. Gutxiengo zerbitzurik jarri ez zuten eta begirale guztiok greba egingo genuenez (hamasei, hain zuzen ere), jangela ere hutsik geratu beharko litzateke, ikus zedin, emakumeok egiten ez badugu, eguneroko lan askok ez dutela aurrera egiten. Baina ez zen horrela izan.

Astebeteko aurrerapenarekin abisatu genuen arren, eskolako zuzendaritza taldeak ez omen zuen irtenbide hoberik aurkitu, eta gure lanpostuak ordezkatu zituen jangela zerbitzuarekin aurrera egin ez. Modu horretan, gure lanuzteak izan beharko lukeen eragina ezerezero murriztu eta zentzua galdu zuen.

Horren aurrean, begiraleok gure haserrea erakutsi nahi diogu Iturburuko zuzendaritza taldeari; alde batetik, gure arteko komunikazio eskasagatik, izan ere, kanpotik jakin genuen ordezkaturako gintuztela. Eta, beste alde batetik, gure greba zapaltzean nabaritu dugun errespetu faltagatik.

Iturburuko jangelako begiraleak

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

MAKIÑA BAT. - Asko, ugari, hamaika. "Makiña bat erregu egin gentsan gelditzeko, baiña dana izan zan alperrik.

MAKIÑATXO BAT. - Asko, makina bat. "Makiñatxo bat egon egindakua haren zaiñ".

astean esanak

"Oso argi daukat Txina dela etorkizuna. Bi Txina daude han: badaude diruaren atzetik dabilzanak, baina oraindik asko dira gizatasunez jokatzeko dutenak. Eztabaidan dabilta, eta bigarrenak irabaztea espero dut. Liluratu ninduen bizitza ulertzeko beste modu bat zutelako, beste kultura bat. Orduz geroztik nik ez dut sinesten hemengo gizartearen, arazoak bonak botatzeko konpontzen ditugulako. Beste leku batzuetan ere Europan baino gehiago errespetatzen dira kulturak eta hizkuntzak; Indian harro sentitzen dira 22 hizkuntza dituztelako"

(JOSE ELADIO SANTACARA, BIDAIRIA)

"Identitateak konplikatua dira, eta mugak ez daude beti oso argi: zer den euskaldun izatea, zer den musulman izatea... Nik uste dut euskaldun gehienak kontserbadoreak direla. Euskal Herria ez da New York. Tira, New York ere... Baina gurea ez da leku bat zeinetan arraza asko egon diren elkarrekin bizitzen urte askoan. Kultura musulmana euskaldunena baino matxistagoa den aurreiritzia ere badago; hori Madrilen 'euskaldun' esan eta ETA aipatzen dizutenean bezala da. Inposizio kulturalak eta estereotipoak kultura guztietan daude. Zure bikotekidea marokoarra edo ijitoa bada, aurpegi txarrak ikusiko dituzu"

(PERNA GOÑI, ILUSTRATZAILEA)

"Cambridge Unibertsitateko Cavendish laborategian nengoenean ezagutu nuen Stephen Hawking, baina inoiz ez nuen berarekin hitz egin, ordurako ez zitzaizkion ulertzen. Bakarrik bere doktoretza ikasleekin mintzatzeko zen, eta eurek esan zidaten beste bi urte baino ez zela biziko. Pentsa! Orduetik ideiatan zentratu zen, ezin zituelako kalkulu aspergarriak egin, eta horrek espekulazio zoragarriak ekarri zituen, kasu batzuetan ziurrenera eta beste batzuetan ez. Oraindik indarrean daude bere teoriak. Horrez gain, edozein egoeratan bizitza bizitzea merezi duela ere erakutsi digu, daukagunarekin gozatzen. Eredua izan da gai askotan"

(PEDRO MIGUEL ETXENIKE, FISIKARIA)



UNAI ARTETXE

Ni ez noa

Nola aldatu diren garaiak, kamaradak. Gogoan dut orain ez hainbeste etxeko telefono finkoak jo eta beste aldean nire aitari "Artetxe ba al dao?" galdetuta "gehiegi, etxe honetan", erantzuten zuela. Horrelakoetan aukera bi zituen nire aitarekin solasean ari zenak, nire edo anaiazen izena gogoratu, edo telefonoa eskegi. Eta gehienetan bigarren aukeraren alde egin ohi zuen. Eta deia ustez niretzako edo anaiaientzako zenez, guk geuk aguantatu behar izaten genituen aitaren txantxak. "Zure lagun batek deitu du, ez da zure izenarekin gogoratu eta eskegi egin du", barrez. Beste garai batzuk ziren. Ez nuke jakingo esaten hobeak edo okerragoak. Ezberdinak.

Sakelako telefonorik ez zen existitzen. Ordu zehatz batean lagunekin Galerosen geratu, eta hobe zenuen garai iritsi, bestela koadrila topatzea dezente konplikatzen baitzen. Nola hala baina normalena denok topo egitea zen ohikoena, lehenago edo beranduago, han edo hemen, baina azkenean bideak leku berera eramaten gintuen denok.

Egun egoera horretan galduta geundeke. Galerosera iritsi eta lagunak falta. Imajinatzeak bakarrik beldurra ematen dit. Tira, seguru inor ez dela ailegatu oraindik. Badazpada mezua bidaliko diet, bidean ote dauden konfirmatze aldera. Erantzunik ez. Hiru minutu pasa dira. Ikur berderik ez pantailan. Berriz idatzi beharko diet. Inork ez du erantzuten. Zerbait pasatu ote zaie? Bidean. Buf. Eskerrak batek erantzun duen. Hau lasaitua.

Eta besteak? Beste whatsapp bat bidaliko diet.

Ez dakit esaten orain lehen baino hobeto bizi garen, baina argi dut orain urte batzuk askeago bizi ginela, lasaiago, alaiago, hainbesteko loturirik gabe. Dena sinpleagoa zen akaso. Ignazio Zuloaga institutuan ibilitako nire belaunaldikoak bazkaria antolatzen ari gara maiatzaren amaierarako. Ia ehundik gora ikasle ohi, askok eta askok urte askoan, institutua amaitu genuenetik, elkar ikusi gabekoak. Whatsapp bidez iritsi da gonbidapena, nola bestela?

Tamalez ezin izango naiz joan, eta ez naiz sakelako zein telefono finko zalea. Beraz, ni ez noa. Espero dut nire mezua iritsiko zaizuela.

Azittain-Maltzaga bittarteko bidegorrixaren proiektua aurkeztu dabe

Eibar eta Elgoibar arteko bidegorri-tartiarren proiektua aurkeztu eben eguaztenian udallexian Marisol Garmendia Mugikortasuna eta Lurralde Antolaketako diputauak eta Miguel de los Toyos alkatiak. Diputauaren berbetan, Gipuzkoako Foru Aldundiko Mugikortasuna eta Lurralde Antolaketa Departamentuak amaittu dau Azittain-Maltzaga bidegorrirako obra-proiektua idazten eta "asmua lanak urte honen amaieran hastia eta bidegorrixa 2019. urtiaren bukaera baino lehen amaittuta egotia" da. Bizikleta zein oiñezkuendako lotura horrek ixa bi kilometro izango dittu eta biharrak 5,1 milioi euroko aurrekontua dake. Esandakuaren arabera, "eraikiko dan tartiak Barrena kalia gaur egun Elgoibartik abiatu eta Maltzagan amaitzen dan bidiarekin lotuko dau". Aurkezpenian esandakuari jarraituta, "Debabarreneko bi herri nagusixak lotzia Aldundiarendako apustu estrategikua da. Jakin bada-kigu ez dala tarte erreza, eraikitzeo zailtasunak dittalako, baiña eskualdeko herritarrak aspaldittik dabiz eskatzen eta horrerri erantzun nahi detsagu".



Proega Eguna egingo dabe bixar Untzagan

La Salle ikastetxeko Proega GKE-k Argentinan martxan dakan proiekturako dirua batzeko kanpaina dauka martxan eta, horren barruan, bixarko jarduera berezixak antolatu dittue: ikaslien famelixak emon dittuen gauzak saltzen jardungo dabe eta, horrek in batera, bigazko merkataritzako produktuak be ipiñiko dittue salgai. Eta azokarekin batera, 11:00etatik aurrera umiendako jokuak egingo dittue, Isasiko eskolako lartxo taldekuen eskutik. Argentinako proiektuan ez eze, Elikagaixen Bankuarekin eta Udalarekin alkarlanian jardungo dabe Proegakuak hillaren 21ian, laguntasun premiñian daguazten Eibarko famelixeri hillero janarixa eruaten, eta herritarrerri ahal daben neurrixan laguntzeko eskatu dabe.



Domekan egingo dabe batzarra Goi Argikuak

Goi Argi emakumien alkartiak bere urteroko batzarra egingo dau domekan, Toribio Etxebarria kaleko 19. zenbakixan dakan lokalian eta, batzarrarekin batera, bazkidiendako beste jarduera batzuk be antolatu dittue. Eguardixan, 12:00xetan, urtian zihar hil diran bazkidiendako mezia egingo dabe San Andres elizan. Billeria, barriz, 18:30xetan hasiko dabe, 2017. urteko kontuak aurkeztu eta 2018rako aurreikuspenak azalduta. Jarraixan, oparixen zozketia egingo dabe eta, eguna biribiltzeko, Goruntz abesbatzaren emanaldixa izango dabe. Ahalik eta bazkide gehixen agertzeko eskatu dabe.



Agertzeko eskatu dabe.

Manifestaziñua egingo da bixar eguardixan, pensioño duiñen alde

Eskualde maillako manifestaziñua deittu dabe jubilauek bixarko, pensioñuak %0'25 igo dittuela-eta protesta egitteko. Untzagatik abiatuko da manifestaziñua, 12:00xetan, eta jubilauek eta pensionisteri ez eze, "gazte, ikasle eta bihargiñeri be" deittu nahi detse, parte hartzera animatzeko. Eibarko jubilauek plataformakuek astelehenoroko konzentraziñuan emon eben bixarko mobilizaziñuaren barri eta, esandakua araberak, bixar arratsaldian Bilbo eta Donostian pensioñuen aldeko manifestaziñuak deittuta daguazenez, Eibarren eguardixan egittia pentsau dabe, "holan hiriburuetan arratsaldian egingo diranetara juateko aukerarik ez dakenak be parte hartzeko aukeria izateko".



Jubilauek egitten diharduten mobilizaziñuen harira pozik azaldu dira Eibarko EH Bilduko ordezkariak, bestiak beste "1.080 euroko gitxieneko pensioñuaren inguruko eztabaida bizibarritu dabelako". Eurak behin baiño gehixagotan horren aldeko eskaeriak aurkeztu dittuela ekarri dabe gogora eta, bide batez, jubilauek deittutako mobilizaziñuetan parte hartzera animau nahi dabe jendia.

autuan

1948-XAN JAIXOTAKUAK

Urte horretan jaixotakuak maiatzaren 26xan ospatuko dabe aurten 70 urte betetzen dittuela, horretarako preparau daben programiari jarraituta: 11:00etan Untzagan alkartu eta zapixak banatu eta gero, taldiaren argazki ofiziala etarako dabe eta, ondoren, Eibarko Armagintzaren Museua ikustera juango dira. 12:45ak aldera piskolabisa jan eta trikitilarixak lagundutako kalejirari ekingo detse eta 15:00etan, barriz, bazkaltzera juango dira. Eta, bazkalostia girotzeko, dantzaldixa eta beste jarduera batzuk preparau dittue. Informaziño gehixagorako 667635367 (Pedro Vega) edo 659947895 (Pastor) telefonuetara deittu.

ASTE SANTUA AZITTAIÑEN

Azitzaingo parrokiakuek meza berezixekin ospatuko dabe Aste Santua: hillaren 25ian (Domeka Santua) 11:00etako mezan bedeinkatuko dittue erramuak eta, ondoren, prozesiñua egingo dabe; Eguen Santuan (29xan), 17:00etan, Jaunaren Azken Afarixa izango dabe goguan; eta Barixaku Santuan, ordu berian, Jaunaren Nekaldixa eta Heriotza gogoratuko dittue; zapatuan ez da ospakizunik egingo eta Pazko Domekan 11:00etan ospatuko dabe Meza Nagusixa.



Etxe barruko biharrari buruzko doku-foruma

Alternatiba erakundiak etxe barruko bihargiñak egitten daben lanari buruz jarduteko doku-foruma antolatu dau eguaztenerako, 19:00etan Portalean: "Cuidado, resbala" dokumentalaren proiektziñuarekin hasiko dabe saia, "ondoren jendiaren artian eztabaida bultzatzeko asmuarekin". Dokumentalari etxe lanetan aritzen diran hainbat andraren eritziak entzun leikez eta, bestiak beste, euren lan baldintzak (prekarietadia, etorkiñen egoeria, esplotaziñua...) zelakuak diran kontauko dabe.

centro médico eibar

URKIZU PASEALEKUA, 13
 Orbeako dorreak / 1. solairua
 ☎ 943 12 02 00 Faxa: 943 12 02 04

- | | |
|--------------------------|-------------------------------|
| 1) Kardiologia | 10) Barne Medikuntza |
| 2) Zirurgia | 11) Radiologia |
| 3) Dermatologia | 12) Urologia |
| 4) Dietetika / Nutrizioa | 13) Traumatologia |
| 5) Analisi Klinikoak | 14) Koloproktologia |
| 6) Ortodontzia | 15) Erizaintza |
| 7) Otorrinolaringologia | 16) Foto-depilazio Unitatea |
| 8) Pediatria | 17) Ginekologia BERRIA |
| 9) Psikiatria | 18) Psikologia BERRIA |

Funeraria·Ehortzetxe Mugica

EIBAR



Beilatokia
 Funeuskadi Eibar:
 Otaola, 27

ELGOIBAR



Beilatokia:
 SIGMA Industrialdea
 (Olasoko hilerriaren ondoan)

Bulegoa Eibarko
 erdialdean



24 orduko zerbitzu iraunkorra

☎ 943 20 19 51 | www.funeuskadi.com

Euskadiko Lehen Ehortze
 Taldea

GRUPO
Funeuskadi

Amesti eta Guridi tabernak irabazi dabe IV. Gilda Lehiaketia

Eguaztenian banatu zittuen IV. Gilda Lehiaketako sarixak ...eta kitto! Euskara Elkartearen lokalian. Mireia Alonso, Ruben Etxaniz eta Josu Mugerzak osatutako epai-mahaixak gilda



Saritu guztiak epai-mahaikidekuekin talde-argazkixan.

onenari sarixa Amañako Amesti tabernari emon detsa. Bezeruak emondako botuen arabera, barriz, Untzagako Guridi tabernaren gilda izan da onena eta horrek eruan dau herritarren sarixa. Bi irabazliak 150 euro eta diploma bana jaso dabe. Horrez gain, bozkatu daben guztien artian egindako zozketan, Ana Larrañagari egokitu jako sarixa, Kantabria jatetxian bi lagunendako menu berezixa. Aurreko ediziñuetan bezala, aurten be Ostalariak eta Dendariak Berbetan programaren barruan antolatu da "Euskeraz Primeran" IV. Gilda Lehiaketia. Aurreko astian, eguaztenetik barixakura bitartian egin zan eta, betiko martxan, arrakasta haundixa euki dau oinguan be: 22 tabernak hartu dabe parte eta hiru egun horretan jende morduak aprobe txau dau lehiaketarako preparau dittuen gilda berezixak probatzeko. Tabernetan bezeruak botua emoteko lagatoko kutxak hustu zittuenian, antolatzailliak 2.000 txartel baiño gehixago bildu zittuen. Epai-mahaikidiak be gero eta bihar haundixagua izaten dabe irabazlia aukeratzeko eta, esandakuaren arabera, "urtetik urtera eboluziño nabarmena dago. Aurkezpena gero eta gehixago zaintzen dabe, sormen lana haundixagua da... txalotzeko modukua da lehiaketan parte hartzarren ostalarixak hartzen daben lana".

Alfako bihargiñak kexu dira Eusko Jaurlaritzan eta Eibarko Udalaren jokabidiaren aurrian

Alfako bihargiñak "lanpostu guztieri eustiarren" greba mugagabian 110 egunetik gora egin ondoren, daroien burrukan erakunde publikuek egindako lan eskasarekin kejavu dira, batez be Eusko Jaurlaritzak eta Eibarko Udalak izandako jokabidiak. Enpresa batzordiak hainbat mezu bialduta be, "azken hillabete eta erdixan iñolako harremanik" ez dabela izan diñue eta Industria sailleko Arantza Tapiaren arretea-eza salatzen dabe. Gauza bera aurpegiratzen detse Miguel de los Toyos alkatiari "enpresaren eta eskirolen aldeko jarriera hartu dabelako". Greban daguazten

bihargiñen ustetan, "hórrek politikuok arazo guztia uste izanaren, siñistiaren eta asmo onaren menpe lagatzen dabe" eta lehenago be halakuak entzutera ohittuta daguazela diñue. Horren aurrian, Udalak zer egitten daben galdetziarekin batera, Grupo Alfaren enplegua suntsitu izanaren arduraduna nun dagan be itauntzen dabe. Bestalde, badela hillabetia piketerik ez dala egon diñue eta, "eskirolen hariara, legezko batzar batian erabagittakua ez onartzian, Grupo Alfako bihargiñen erabakitze-organuari jaramon ez egittia" aurpegiratzen detse.



EREaren barruan 131 bihargin euren lanpostuetan jarraitzia da mahai gaiñian dakena eta kontsulta-epia datorren asteko martitzenian, hillaren 20xan, amaittuko da. Oin arte administradore konkurtsalak egindako planteamenduak ez dittue bihargiñen eta komitiaren eskakizunak betetzen: "Horrez gain, inbertsoriaren inguruan helarazi deskuen informaziñuak zalantzak besterik ez desku eskintzen".

Bihurrik ikuskizuna eskindu zeban Eibarren partiduaren aurretik

Aurreko asteko zapatu gozian ondo moldatu zan Eibar-ko aizkolarixa Real Madrillen aurkako partidu-aurrekuan Eskozia la Bravako peñakuak eskatu zetsen kirol-ikuski zuna eskintzerakuan. Ernesto Ezpeletak berotzeko lan jarduna hartu zeban bere gain eta baita bikain erantzun be. Bi eskurekin hasi zeban bere egunerokua, 3 metroko perimetrotako enborra mozteko eta, jarraixan, bi metro eta erdikuari

ekin zetsan esku bakarrarekin. Aurrekua nahikua ez eta, enborrekin amaittuta, atenziño gehixen deittu zeban lanari ekin zetsan: lau auto erdibitziari aizkoria erabillitta. Ernestok puntua hartuta detsa lan horri be eta ikusliak pentsautakua baiño lehenago amaittu zeban bere lana.

Ekitaldixa Magdeburgon oin dala gitxi osatutako Eibar Football Taldiaren peña barrixari ongi-etorrixa egitteko progra-



maren barruan zeguan eta handik etorrittako alemaniarrak ondo gozatu zeban ikusitakuarekin. Nikchups-ak aurretik udaletxian izan ziran eta bertan alkatiaren agurra jaso

zeben, Eskozia la Brava taldekidenarekin batera. Real Madrillen bisitia aprobe txatuta, Japonetik etorrittako beste peña bat be egon zan zapatuan gure artian.

40 arbola landatuko dittue domekan Zuhaitz Egunaren harira

Udaleko ingurumen saillak, Klub Deportibuen Mendi Tal-diarekin eta Debegesarekin batera, Zuhaitz Eguna antolatu dau domekarako. Antolatzaillak diñuenez, "helburua herritarrek ingurumenarekin kontzientzia hartzea eta, horrekin batera, gure basuen iraunkortasuna ziurtatzia da". Hori dala eta, domekan bertako 40 zuhaitz (lizarrak, gorostiak, haritzak eta urkiak) landatuko dira Eztiagan, Iturburu Ikastolaren parian dagan udalaren lur-sail batian. Goizeko 10:30xetan hasiko dira arbolak landatzen, baiña biharriari hasi aurretik taillar labor bat egingo dabe, juandakueri landatuko dittuen arbolen ezaugarri nagusixen barri emon eta bihar dan moduan landatzeko azalpenak emoteko. Umiak zein helduak, nahi dabenak izango dau Zuhaitz Egunian parte hartzeko aukeria. Taldian igotzia nahi izanez gero, Klub Deportibuen parian batuko dira, 09:30xetan eta, bestela, zuzenian jua leike Iturburu parera. Zuhaitzak landatu eta jarraixan, mokadutxo bat janda agurtuko dabe ekitaldixa, Eibarrera bueltau aurretik.

Ekimenaren arduradunak zuhaitzak gure bizitza kalidadian da-



ken eragiña azpimarratu nahi dabe, "izan be, biodibertsitateari eusteko, atmosferako karbono-dioxidoa xurgatzeko, luperixa eta ufaletatik babesteko eta paisajari bere horretan eusteko derri-gorrezkuak dira zuhaitzak".

Bixar egingo da VIII. Lore, Landare eta Zuhaitz azokia Urkizun

Udaberriko lore eta landare azokia egingo da bixar Urkizun, Debemen alkartiak eta Udalak antolatuta. Goizeko 09:00xetan zabaldu eta 14.00xetan itxiko dabe eta, tartian, 11:30xetan lorak landatzeko taillarra eskinduko dabe. Aurreko urtiotan bezala, oinguan be askotariko produktuak bilduko dittu azokak: sasoiko landare eta lore aukera zabala, landare apaingarririk, landare usaintsuak, jatekuak, sendabelarrak, kaktusak... Horrekin batera, artisauak ekoiztutako produktu kosmetikuak eta osagarri naturalak be egingo dira salgai, baita landatzeko hazixak be.



Armerixa Eskolako Ikasle Ohien batzarra

Armerixa Eskolako Ikasle Ohien alkartekuek datorren asteko barixakuan egingo dabe batzarra, 11:00xetatik aurrera eskolan bertan. Ekitaldixa amaittu eta gero, ohikuari jarraituta taldiaren erretratua egingo dabe eta, ondoren, nahi dabenak Ipur Sagardotegixan egingo dan bazkarira juateko aukeria eukiko dau (informaziño gehixago eskatzeko edo izena emoteko 943 20 32 44 telefonora deittu edo elkarte@armerixa-eskola.eus helbidera idatzi). Bazkalostian 1993. urteko promozioñokueri oroigarrixa banatuko detse, 25. urteurrenaren gaittik eta 1968xan Eskolan ikasten hasi ziraneri, barriz, 50. urteurreneko insignia oroigarrixa emongo detse.



Azokiak bost ordu iraungo dau eta taillarra be izango da. **Maialen**

Biharreko kontuen gaiñian pozik jardun eben andrak

Aurreko barixakuan Eibarko Sozialisten eskutik egin-dako mahai-inguruan emakumien lan baldintza eta eskubidieri errepasso politta egin zetsen gonbidatuak. Herriko taillarretan biharriari jardun daben Carmen Retenaga, Ana Alberdi eta Itziar Badiolarekin batera UGT eta CC.OO. sindikatuetako ordezkariak egin eben berba.



Maialen Belaustegi

MAR TXO AK



Eibarrek PLANTO

ARGAZKIAK: Ekhi Belar



...eta kitto! Euskara Elkartea



**Maria Luisa Zuloaga
eta Mikel Urkia**

**“...eta kitto!-ko
familiaren parte
sentitzen gara”**



Aurten ...eta kitto! Euskara elkartearen 25.urteurrena ospatzen ari gara, eta urte guzti hauetan bazkideen parte-hartzea eta ekarpena oso garrantzitsua izan delako ospakizun berezia egingo dugu apirilaren 22an Coliseo antzokian. 1992an sortu zen elkartea, Eibarren euskararen alde lan egiteko eta euskaltzaleen sarea osatzeko helburuarekin. Garai hartan egin ziren ...eta kitto!ko bazkide Maria Luisa Zuloaga eta Doroteo Urkia senar-emazteak, "eta bazkide izateari lagatzea ez zaigu inoiz ere burutik pasatu".

Euskaldun izatez gain euskaltzaleak dira Maria Luisa eta Doroteo, eta etxean beti jardun dute euskaraz euren 4 semeekin. Mikel etxeko gazteena da eta berak ere ondo ezagutzen du elkartea. Urte asko eman zituen aldizkaria Eibarko etxeetan banatzen eta oso ondo gogoratzen ditu urte haiek. "14 urterekin Egunkaria banatzen nuen bizikletarekin, eta gero ...eta kitto! banatzen hasi nintzen, euskarari laguntzeagatik eta bide batez sosa batzuk irabazteko. Gida komertziala banatu behar zenean amaren R-7an sartu, anaiaren mendiko motxila hartu eta karroa goraino beteta... hor ibiltzen nintzen". Elkartearen egoitza desberdinak ezagutu zituen Mikelek: Markeskua, Armeria Eskola pareko lokala eta merkatu plazakoa. Ez da lan makala aldizkaria buzoi

guztietara ailegatzeko banatzaileek egiten duten lana, pisu handia eraman behar izaten dute karroetan eta eguraldi txarrari aurre egin behar izaten diote askotan. Neurri handi batean eurei esker daukagu barixakuero aldizkaria gure etxean, eta hori benetan eskertzekoa da.

...eta kitto!rekin harremana eta elkarlana ez zen horretara mugatu, eta elkartea merkatu plazan zegoen sasoian, gazteenzako gauzak antolatzen ibili zela esan digu Mikelek: "Ondo gogoratzen ditut Julian Etxebarria kaleko Caja Laboralean eta Kulturalaren ondoko lokalean antolatzen genituen artista gazteen erakusketak. Kontzertuak ere antolatzen ibiltzen ginen".

Bazkide noiz egin zen ez du gogoratzen Mikelek. Orain Eibartik kanpo bizi da, Markinan, eta "astekaria korreoz jasotzen hasi nintzenean albisteak desfasatuta ikusten nituenez, eta gastu bat iruditzen zitzaidanez, aldizkaria ez bildatzeko abisua pasatu nuen. Eguen iluntzeetan ohitura handia daukat online irakurtzeko".

Elkartea Markeskuan zegoenean egin zen bazkide Maria Luisa. Berarentzat oso garrantzitsua da euskararen alde egiten den guztia eta, horregatik, harrotasun eta poztasun handiarekin esaten du herriko euskara elkarteko kide dela. "Elkartek antolatzen dituen gauzetan parte hartzea gustatzen zait, euskararekin zerikusia daukaten ekitaldi guztiekin bat egiten dut. Gogo handiarekin hartzen dut aldizkaria bari-xaku gabeetan, momentu horren zain egoten naiz, gauza askotaz enteratzen naiz al-

dizkariari esker. Eta aldizkari bat lurrian botata edo zakarrontzian ikusten badut... mina hartzen dut, sutan jartzen naiz". Aldizkari asko ditu etxean ondo gordeta, eta horien artean, nola ez, bere semeek urtero San Ferminetan "...eta kitto! eskuan daukatela ateratzen dituzten argazkiak jasotzen dituzten aldizkari guztiak".

Laguntzeko prest egoten da beti Marialui. Aurreko zapatuan loreak eta landareak biltzen ibili ziren Azitaindik gora Berbetan programetako hainbat kide eta, eguna biribiltzeko, Maria Luisak bazkari gozoa prestatu zien Asola Berrin, Joxean semearekin batera. Doroteok ere urte askoan lagundu dio elkarteari Sagardo Egunean, Tantanez Tantan...

Gaurko gaztetxoak nola ikusten dituen galdetu diogunean baikor agertzen da Marialui, "denek dakite euskaraz hitz egiten, eta hori oso ona da. Nik beti egiten diet euskaraz. Kalean erdaraz entzuten badiet, ezin naiz isilik gelditu eta ez dakizue euskaraz, ala? galdetzen diet. Ezin gara isilik gelditu. Pena da jakin baina ez egitea". Mikel ez da hain baikor azaltzen, euskara ez atzera ez aurrera ikusten du Eibarren. Markinan beste errealitate bat bizi du berak.

Elkartean beti laguntzeko prest daude Urkiatarrak. ...eta kitto!-ko familiaren parte sentitzen dira eta Mikelek emailaz mezu bat bidaltzen duen bakoitzean "kai-xo familia!" izaten dira beti lehenengo hitzak. Bai horixe, hitz gutxiarekin gauza asko esan daitezke!



RAY MUÑOZ: "Txonta".

Umegoiztiarrei heltze-prozesuan laguntzeko olagarro itxurako kopak egiten hasi ziren Danimarkan 2013. urtean, eta Europa eta Erdialdeko Amerikan zehar zabaltzen joan da ordutik. Proiektuak 'Noupops' izena hartu zuen Espainian, bi berba katalan batuz: 'nou' (haur goiztiarrentzat delako) eta 'pops' (olagarroa). Kopinak estatuko 35 ospitaletan erabiltzen dira (Euskal Herrian momentuz ez) eta proiektu honek Gipuzkoan duen enbaxadorea Cristina Pereda eibartarra da. Proiektuaren informazio gehiago eskuratzeko noupopsgipuzcoa@gmail.com helbidera idatzi edo Facebookeko orrialdera jo (Pulperas Solidarias Noupops Guipuzcoa).

CRISTINA PEREDA

("Noupops"-en enbaxadorea):

"Umeak lasaiago egoteko balio dute olagarro-kopinek"

- Nolako panpinak dira 'Noupops' horiek?

Gantxilo edo kakorraz-ehunarekin egindakoak dira. Patroi espezifikoak jarraitzen dute, legegaren kontrola erabatekoa da eta oso babestuta daude, copyrighta dutelako eta ezin direlako saldu. Olagarroekin negozioa egitea debekatuta dago eta, gainera, etikoki ez da zuzena, proiektuaren helburua zintzoa delako.

- Bestelako neurri bereziak hartu behar dira kopinak erabiltzeko?

Kopinak egiteko ezin da edozein hari erabili, zerranda bate-

an daude zehaztuta zeintzuk erabili ahal diren. Olagarrotxoak garbituta eta higienizatuta joan behar dira, eta kasu batzuetan baita esterilizatuta ere. Horrek kostu handia dauka.

- Zein da olagarro-kopinaren funtzioa?

Olagarro-kopinaren tentakuluak ehuntzeko moduak zilbor-hestearen itxura dauka eta, esaten dutenez, umea lasaiago egoteko lagungarria da. Ume goiztiarrak ez daude behar bezain helduta, eta heldutasun hori amaitzeko sabel barruan duen erosotasuna irudikatzen erramintak eskain-

tzea da helburua. Horrela, umeak lasaiago egoten dira eta, ondorioz, hobeto kontrolatzen zaizkie bizi-konstanteak, oxigeno-maila handitu egiten da eta denak hobeto funtzionatzen du.

- Kopinak garbitzeak dakarren duen kostu handia aipatu duzu. Nola egiten diezue aurre?

Boluntariotza eta donazioen bitartez lortzen dugu dirua. Boluntarioek doan ehuntzen dituzte olagarrotxoak eta guk, proiektuaren enbaxadoreek, kopinak ehuntzeko tailerrak ematen ditugu dohainik. Bestetik, donazioak egiteko hainbat modu daude. Dirua eman ahal da, baina kopinak egiteko materiala ere eskaini dezake jendeak.

- Nola sartu zinen proiektu honetan?

Nire senarraren lehengusina bat Katalunian bizi da eta 'Noupops'-ekin elkarlanean zebilen. Proiektuari buruz Facebooken jarri zuen argitalpen bat ikusi nuen eta interesatu egin zitzaidan. Arduradunarekin berba egin nuen, GKE guztiak ez di-

relako kanpotik diruditen bezalakoak, eta gaiarekiko interesa nuela ikusi zuen. Olagarrotxoak egiten eta nire dendan (Caprichos Kris' -Tiburzio Anitua, 9) kopinak batzen hasi nintzen, baina aita gaixotu egin zen eta ezin izan nintzen gehiago inplikatu. Aita hil zenean kopinak ehuntzeari ekin nion berriz ere eta 'Noupops'-eko Gipuzkoako enbaxadore izendatu ninduten.

- Zein da zure lana enbaxadore moduan?

Kopinak ehuntzen ikasteko dohaineko tailerrak antolatzea, kopinak biltzeko toki gehiago bilatzea, diru-laguntzak lortzea eta proiektuaren berri ematea.

- Eibartarrek bat egin dute proiektuarekin?

Boluntarioen aldetik nahiko gaizki gabilitza gaur egun, baina hedabideetan proiektuaren berri eman denetik jendeak interesa agertu du eta oso pozik nago, eskertzekoa da. Amañako ikastetxean tailerrak eskaintzen ditugu barixakuetan 14:30etik 16:00etara, eta Untzagako Jubiletxean ere kopinak egiten hasiko dira orain.



Egoaizia Kooperaziño eta Garapenerako erakundiak urtiak daroiaz Peruko nekazarixekin alkarlanian, Piura izeneko eskualdian bizi diranen alde biharrian. Ahal daben dirua hango nekazarixeri bidaltziaz gain, lantzian behin boluntarixuak be juaten dira, hanguekin batera kakaogintzari bultzadia emoteko proiektuan biharra egittera. Eta beste batzuetan, barriz, hango erakundietako ordezkariak gurera etortzen dira eta, biajia aprobetxatzen dabe eurenian gauzak zelan doiaz kontatzeko. Aste honetan euretako birekin jardun dogu berbetan eta pozarren topau dittugu, eibartarrak emondako laguntasunari esker egunetik egunera hobera egitten doiazelako.

CIPCA nekazaritzaren promozioño eta inbestigaziñoarako zentruko Emma Gallardok eta APRPROCAP Piurako kakao ekoizle txikixen kooperatibako Donald Floresek azken astiak Euskal Herrixan emon dittue, Mondragon Unibersidadeko Lanski Institutuaren eskutik Eskoriatzan emoten ari diran ikasturuan parte hartzen. Datorren asteko barixakuan amaittuko dabe "Ekonomixa solidarixuaren garapenerako gestiño ekonomiko eta soziala" izenburukua eta, kontau deskuenez, pozarren dagoz ikasturuan ikasi dittuen gauza guztiek: "Etxera bueltatzen garanian ikasi dittuenetako asko praktikan ipintzeko desiatzen gaoz, guretako benetan interesantiak izan leikiazen gauza asko erakutsi deskuez eta, ikasittako batzuk aplikatzen hasiz gero, gure biharra eta produktua bera asko hoberetuko dala pentsatzen dogu".

Egoaizia eta Piurako bi alkarte horren arteko harremana oin dala sei urte hasi zan eta, harrez gero, eibartarren ahalegin guztia nekazaritzatik bizi diran hango herritareri laguntzera bideratuta egon da. Eta Perutik etorritako bi lagunak zer diñuen entzunda, argi dago ez dirala alperrik ibilli: "Azken urtiotan oso aldaketa haundixak euki dittugu, asko hobetu dira guk egitten dogun biharra, baita bihar horren emaitza, hau da, kakaoa. Gu bizi garan tokixan gehixenak nekazarixak gara eta kakaoaren ekoizpenari esker sartzen da famelixandako dirua etxietan. Landatzeko lurraren ba-



Azken astiak Euskal Herrixan emon dittue Emma Gallardo eta Donald Floresek, Eskoriatzan ikastaro bat egitten. Argazkixan, Egoaiziako Alaia Berriozabal eta Gloria Morarekin.

Mugarik gabeko alkartasunaren emaitzak

naketari begiratz gero, ixa danak ekoizle txikixak gara, lurra gurasuengandik seme-alaben eskuetara pasatzen jua diru eta bakotxak ahal izan daben moduan egin dau aurrera kakaoa landatu zein ekoizteko orduan. Saltzerako orduan be, bakotxa bere aldetik ibillitta, oso merke saldu bihar izaten eben, erosliak eskindutako prezian, horrerri aurre egitteko indarrrik ez zeken-eta. Baiña kooperatiba eratu genduanetik horrelako kontuetan hobera egin dogu, nabarmen, gaiñera. Bestiak beste, gaur egunian erosliarekin zenbaten salduko dogun negoziatzeko aukeria badakagu eta, bidian beti oztuak egongo diran arren, danak alkarrekin egonda beti da

errezagua aurrera egittia. Diru-laguntzak eta bestelakuak lortzeko orduan be, asko laguntzen dau kooperatiba izatiak".

Premixua Parisko Txokolate Azokan

Lurra lantzen dabenen lan eta bizi baldintzak hobetiaz gain, kakao-lurrak be lehen baiño askoz hobeto daguzela pentsatzen dabe: "Danak alkartu baiño lehen bakotxak modu batian lantzen eban bere lur-sailla. Kontuan euki bihar da ekoizle bakotxa gehixen jota hektarea bateko azaleriaren jabe zala eta, kakaoa ez eze, famelixaren ekonomixari asko laguntzen detsen frutarbolak eta bestelakuak landatzen zittuala eta, distantzia batetik begiratz



Nekazari txikixak batu eta kooperatiba sortu ebenetik gero eta indar gehiago dake. Emoten dittuen pausuak gizarte osuan eragiña dake.

hasiz gero, nahaste-borrastia besterik ez zan ikusten. Gaur egunian, barriz, lur-sailak landatzerakuan kontu haundixagua eukitzen dabe eta, horrerri esker, kakao-lurrak oso bestelakua dan itxuria daka”.

Produkziñuari begira, landarien eta, hortaz, emoten daben fruituaren kalidadia hobetzeko biharrian dihardue etenbarik eta urtian ekoizten daben kakao kopuruak be oso gorakada haundixa euki dau urte gitxi-kotartian, 0’15 tonako produkziñotik 0’47 tonako produkziñora saltua emon dabe.

Horrekin batera produktuaren kalidadia asko hobetu dabela diñue: *“Geuk betidanik euki dogu kakaua eta, agian horregaittik, sekula ez detsagu aparteko garrantziarik emon. Txokolatia egitterakuan, adibidez, ez zan beti emaitza bera lortzen eta, sarrittan, ahuan sartu eta oso pikortsua izaten zan, egixa esateko ez zan oso fiña izaten”.* Kooperatiba modura dihardunetik,

baiña, ez da holakorik pasatzen. Are gehiago: iaz Parisen egindako Txokolate Azokan parte hartzeko aukeria izatiaz gain, etxera bueltan premixua eruan eben, azokara eruandako kakauak kalidade onenari sarixa emon zetsen eta.

Oin dala ez horrenbeste kontuan hartzen ez zittuen gauza askori begiraten ikasi dabela diñue: *“Adibidez, saltzen dogun produktua ezagutzera emoteko irudixa, marka eta beste hamaika kontu lantzen dittugu oin eta lan horren emaitzak be ikusten hasi gara. Eibarren egitten dan bazkari-xan bildutako diruarekin, bestiak beste, balio erantsia sortzeko biharrian jarduteko aukeria izango dogu”.*

Genero-ikuspegixa danian lantzen

Kooperatiba eratzia nekazaritzari ez eze, gizartiari bere osotasunian eragin detsala azaldu deskue: *“Gaur egunian gure*

eskualdeko 1.200 bat famelixak dihardugu proiektuan biharrian. Kakaoaren ekoizpenarekin lotura zuzena daken lanetan kanbixo haundixak euki dittugu, zalantza barik, baiña aittatutako prozesuan, emoten dittugun pauso guztietan genero-ikuspegixa lantzen ahalegintzen gara. Gure gizartian bizitzako gauza askotan gizonak jaun eta jabe izan dira urtietan eta hori be aldatzen goiaz, sosiguz-sosiguz. Hasi giñanian zuzendaritza taldian andra bakarra eguan eta, gaiñera, billeretan gehixenbat entzuten egoten zan, ixa berba egin barik. Gaur egunian, barriz, kooperatibaren inguruan eratu diran mahai guztietan gitxienez andra bat dago eta, gaiñera, bere eritzi eta bestelakuak entzun egitten dira. Hori holan izateko, jakiña, etxe-barruko antolaketan eta beste gauza batzuetan gauzak aldatzia derrigorrezkua da eta horretan gabilta”.

Errebal, 16 943-509027

asketa.mueblesdica.es

lorentzo.asketa@gmail.com



ASKETA
ERAIKUNTZAKO ZERBITZU INTEGRALA
SERVICIO INTEGRAL DE OBRAS



– SUKALDEAK
– BAINUAK
– ETXEKO
ALTZARIAK

Fabian Castro (txakur-kroslaria)



“Nire bizitza txakurrak dira”

Mushing (txakurrek tiratutako trineo lasterketak) modalitateetako bat da txakurkrosa. Orokorrean 5-10 kilometrotako mendiko ibilbidean lasterkalariak txakur bati lotuta egiten duen lasterketa da. Fabian Castro eta Lunak bikote aparta osatzen dute, eta apirilaren 7an Zizurkilen Euskadiko Liga lortzeko aukera handiak dute. Hazten doan kirola dela esan digu eibartarrak eta datorren urteari begira Eibarren taldea osatzeko asmoa dauka.

- Txakurra eta lasterkalaria lotuta joaten zarete txakurkrosean. Nork egiten du lan gehiago?

Txakurkrosean txakurrak egiten du tira eta antxixiketalaria txakurra jarraitzen saiatu behar da. Ezin duzu txakurra bizkorrago joaten behartu, berak markatzen du erritmoa beti eta ezin da lasterkalariaren atzetik joan.

- Nola antolatzen da hemengo txapelketa?

Espainia mailako liga bat dago eta, gero, ia probintzia bakoitzak bere txapelketa dauka. Hemen Euskadi, Bizkaia eta Gipuzkoako ligak ditugu. Euskadiko Ligan sei lasterketa daude, Gipuzkoan lau eta Bizkaian bi.

- Eta zer moduz zabilta denboraldi honetan?

Lasterketa bakarra gelditzen da liga amaitzeko, Zizurkilgoa, eta lehen postuan nago saillkapenean. Dena normal badao, saillkapen orokorreko eta senior mailako txapela lortuko dut. Aurten lehen aldiz liga osoa lehiatzeko helburua neukan eta ondo irten da apustua.

- Txakurkrosa zergatik egiten da neguan bakarrik?

Tenperatura kontuagatik, txakurrek gehiegi sufritzen dutelako 16° baino gehiagorekin. Adibidez, lasterketa egunean 16° eta 18° artean egiten badu, 4 km baino gutxiagoko zirkuituan lehiatzen gara; eta 22°



baino gehiago badaude, lasterketa bertan behera geratzen da.

- Talderean batean zabilta?

Bizkaiko talde batekin hasi nintzen txakurkrosean, orain Amarok deitzen dena, baina utzi egin nuen eta sortu berri den talde batean hasi naiz. Datorren urtera begira Eibarren taldea sortzeko asmoa daukagu, hemengo eta inguruko herrietako txakurkrosalarietako lehiatzeko aukera emateko; bestela, Bilbo, Irun edo Hondarribiako taldeetan ibili behar dugu.

- Nola hasi zinen txakurkrosean?

Txirriindularitzan ibili nintzen jubeniletara arte eta lagatakoan gimnasia joaten hasi nintzen. Txakurrak asko gustatzen zitzaizkidan eta bat erosi nuen. Nekaezina zen eta aktibitatea behar zuela ikusi nuen. Mendira joateko zaletasuna hartu nuen eta Elgoibarko lagun batek eman zidan txakurkrosaren berri.

- Nola entrenatzen zarete?

Entrenamendu espezifikoa egin behar badut, txakurra bizikletara lotu eta pedalei eragiten laguntzen diot (lasterketetan eraman nahi dudana erritmora joateko); bestela, lasterketan bezala ibiltzen gara bere nire gerrira lotuta. Kontua da eurek guk baino gaitasun handiagoa dutela. Batzuetan mendira joaten naiz berarekin aske arinuketan egiteko. Egunero egiten dugu zerbait eta txakurraren elikadura asko zainitzen dut. Nire bizitza txakurrak dira.


Ekainaren 10ean osatuko den giza-katea aurkeztuko du Gure Esku Dagok martitzenean

Hiru hilabete barru, ekainaren 10ean giza kate batean batu nahi ditu Gure Esku Dagok 100.000 lagun baino gehiago, eskuz esku, arrazoiez betetako zapiekin. Donostian hasi, Bilbotik pasa eta Gasteizko legebiltzarraren atarian amaituko da mobilizazioa, 201,9 kilometro egin eta gero. Ekitaldiaren inguruko azalpenak emateko asmoz, beste herri batzuetan bezala, Eibarren ere aurkezpen ekitaldia egingo dute datorren martitzenean, 19:00etan Portalean.

Ekainaren 10a Herritarren Itunean jasota dauden erabakitze arrazoiak plazaratzeko eguna izango da. Hala azaldu zuten Gure Esku Dago dinamikako ordezkariak ekimenaren berri emateko orain dela egun batzuk Donostiako Eureka Zientzia Museoak hartu zuen ekitaldian. Aurtengo plangintzari heldu eta, aurreratu zutenek, ekainera bitartean aurretik dauzkagun hilabeteotan erabakitze 2019 arrazoi bilduko dituzte herriz herri: "Ekainaren 10ean, milaka lagun, arrazoiz betetako zapiak tarteko, elkartuko dituen giza katean plazaratu-

ko dituzte aurreko hilabeteetan jasotako arrazoiak. Bost urtean egin, ikasi eta lortu dugun guztiaren emaitza izango da ekainaren 10a, eta herritarren erabakitze arrazoiak erakundeetara bideratuko ditugu".

Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako GE-Dren kideen arabera, gutxienez 100.000 lagun beharko dira giza katea osatzeko eta, finantziorako ez ezik, antolaketarako ere, saretzearen garrantzia azpimarratu dute. Hori dela eta, ekitaldirako izen-ematea martxan ipini dute interneten, gureeskudago.eus atarian eta, horrekin batera,



Ekainaren 10ean egingo den giza-katerako aurkezpena egingo da martxoaren 20an.



2014ko ekainaren 8an milatik gora eibartar batu zen giza-katea osatzeko ekitaldian. Leire Iturbe

herrietako taldeen eskutik izena emateko bideak zabaltzen hasita daude. Eibarren datorren asteko aurkezpena egitearekin batera zabalduko dute izen-ematea.

Giza kateak kilometro asko izango dituen arren, ez ditu Euskal Herriko herri guztiak zeharkatuko, baina Eibar ibilbidearen barruan izango dela eta, eibartarrei zein inguruko herrietan bizi direnei ekitaldian parte hartzeko dei berezia egin nahi diete. Barrena kalean hasiko da giza katearen 71. kilometroa eta herri-barruko ibilbidea Ermuraino, Errotabarri tren geltokiaraino pareraino joango da.



EMILIO AZURMENDI AGIRRE "SAGARBITZA"

V. URTEBETETZEA (2013-III-13)

"Bost urte badira ere joan zinenetik, zure argiak eta zure oroitzapenek gure bihotzak argitzen jarraitzen dituzte"

ETXEKOEK



+ osasun gida

Dentistak

arat
Hortz Klinika

943 20 18 51
info@clinicadentalarat.com
www.clinicadentalarat.com

Toribio Etxebarria, 4 - 1ºesk

Hortz-osasuneko profesional taldea zure zerbitzura.

UniverSalud
Mutua, konpainia eta kolektibo handiekin itundutako zentroa

R.P.S. 123/17

Esku onetan egotearen ziurtasuna.
20.000tik gora paziente pozik.
Etorri eta egin irribarre berriz ere.

bista eder
clinica dental hortz klinika

Deitu | 943 70 00 82

bista eder, 19
www.bistaeder.es

EIBAR ♦ HORTZ KLINIKA CLÍNICA DENTAL

MAITANE G. IÑIGUEZ

Zerbitzu guztiak klinika berberan

San Agustín, 4 behea ezk. info@eibarclinicadental.com
943 537 076 - 688 884 808 www.eibarclinicadental.com

Pedro Etxebarria Gisasola
DENTISTA

09.00etatik 13.00etara eta 15.00etatik 20.00etara

EGUNERO

Calbeton 19 - 3. ezk. Tfnoa: 943 20 72 17

GASTESI
Hortz-Klinika

Odontologia orokorra eta prebentziozkoa / PADI
Ortodontzia / Implanteak / Laser Teknologia

Errebal, 9-1.C 943 70 00 90 / 688 68 96 02

hortz-klinika
B. IZAGIRRE
clínica dental

EGUNERO

Untzaga, 5 - 4. Tel. 943 70 23 85

IRAZABAL
clínica dental

Iribarreetan adituak
ESPEZIALITATE GUZTIAK

Julian Etxebarria, 12 - 1. Esk.
Tfnoa. 943 20 85 52
www.clinicalrazabal.com

MIGUEL SEMINARIO
ZURIARRAIN ODONTOLOGOA

Odontologia orokorra
Ortodontzia
Implanteak

Bidebarrieta, 7-1. esk. 943-702896

10 urte zurekin Eibarren

25 prestazio doan zuretzako

VITALDENT
Konpromisoa

San Juan, 7
943 821 885 - 690 628 731
www.vitaldent.com

Dietetika/Nutrizioa

NATUR HOUSE

Ainara Iriando Ansola
GIZA ELIKADURAN ETA
DIETETIKAN DIPLOMATUA

Toribio Etxebarria, 22
Tel. 943 108 020 Mug. 677 551 850

Errehabilitazioa

CRF AMOSTEGI
ERREHABILITAZIOA

- * Fisioterapia / Errekuperaketa funtzionala
- * Min-Unitatea
- * Inkontinentzia urinarioak
- * Kirol medikuntza
- * Ama izateko prestakuntza

Muzategi 2 (EIBAR) San Ignacio 2 (ELGOIBAR)
Tfnoa. 943 20 34 46 Tfnoa. 943 74 33 74

Estetika klinika

abontza
clínica estética

Dr. J. Ramón Fdez. Ciudad

MEDIKUNTZA
ESTETIKOA

KIRURGIA
ESTETIKOA

Egiguren, 6 - behea 943 206 044

Fisioterapeutak

ANE MENDIA
970 Kolegiatu zbkia.

Indibaterapia
Kirol lesioak
Drenaje linfatikoa

ARRAQUETA, 20
TEL. 943 53 06 42
ane_mendia@hotmail.com

FISIOTERAPIA
ZENTRUA

Ginekologia

Mª Jose Ruiz de Porres
DOKTOREA

- Bularren azterketa
- Minbiziaren azterketa prebentiboa
- Zitologia
- Baginakoa eta sabelaldeko ekografia
- Mamografiak
- Bularretako ekografia
- Nerabeentzako arreta
- Menopausiadunentzako arreta
- Haurdunaldiaren kontrola
- Kontrazepzioa

T. Etxebarria, 4 - 1. esk. 943 20 28 57
94 444 95 34

Logopedak

AHOTS-LAN
LOGOPEDIA-PSIKOLOGIA

Isasi, 17 - 1. esk. 943 202691
ahotslan@gmail.com

Diagnostikoa eta tratamendua

Degluizio atipikoa
Disfonia
Ikaste-arazoak

Arreta arazoak
Berba arazoak
Dislexia

LEHENENGO KONTSULTA DOAN

Logopedak

AROR
PSIKOLOGIA - LOGOPEDIA
----- (Ume eta helduendako) -----
Ana Artamendi

- Afasiak
- Dislexiak
- Disfoniak
- Hizmoteltasuna
- Dislaliak
- Eskola arazoak
- Degluzio atipikoa

T. Etxebarria, 10 - 6. ezk. (EIBAR)
Tel. 943 20 27 15 / 670 82 43 27

Berba
Logopedia
AIDA CORTA ANTÓN

Ebaluazioa eta tratamendua:

- Hizkuntza
- Mintzaira
- Ahotsa
- Dislexiak
- Entzumena
- Degluzio atipikoa

SAN AGUSTIN, 2-4 (B. ARRASATE)
Mobila: 622-629-544
logopeda@berba.es

Okulistak

Oftalmologoak
Centro de Oftalmología Avanzada

JOSE ALBERDI
www.oftalberdi.com

San Juan 11 - solairuartera
943 20 19 82

Recalde
Clínica Oftalmológica
Oftalmologi Klinika

· Presbiziaren kirurgia.

R.P.S. 234/13

Plaza Barria 2. 2º. Tel.: 943 201 844
www.clinicarecalde.com

Psikoterapia

FUB
PSIQUIATRIA / PSICOTERAPIA / ALFA EIBAR
RPS: 32/17

FERNANDO URIZAR BARANDIARAN

Medikuntza Psikiatrikoa

Ego Gain, 18 - 1 A (Eibar)
615 71 54 04

Bailen, 9 - 1. ezk. (Bilbo)
94 416 49 06

furizar1@yahoo.com

Podologoak

- Kiropodiak, gogortasunak eta kailuak
- Atzazkal orbainduak
- Oinazpiko garatxoak (papilomak)
- Plantillak digitalizatuak (scanner bidezko inpresioa)

ELENA AIZPUN
PODOLOGOIA
124 kolegiatu zenbakia

T. Etxebarria (DOS DE MAYO), 5 - 1. A
943 12 14 93 / 696 555 208

BIDEBARRIETA, 48
EIBAR
943 203050

ERDIKO KALE 54
ARRASATE
943 799746

PODOLOGOIA
Erdiko klinika

Nerea Arregi (123 Kolegiatu zbkia.)
Rosarito Rodriguez (125 Kolegiatu zbkia.)
Amagoia Zubizarreta (122 Kolegiatu zbkia.)

PODOLOGOIA

Maidar Lopez Etxebarria

Arragueta 2 Bis-B, Behea B
Tfnoa. 943 82 04 88

65 Kolegiatu zbkia.

PODOLOGO
T. ORTOPEDICO

Iñaki Rivero Zabaleta

Calbeton, 4 - 2.
(Untzagako dorrea)

Tel. 943 20 86 41

Psikologoak

AMETS
PSIKOLOGIA KLINIKOA
ETA OSASUN ZENTROA

BIDEBARRIETA, 27 - B, 1. solairua, 9. bulegoa
www.centroamets.com

Coro Ortíz de Urbina
PSIKOLOGOIA (G201987 kolegiatua)

- Masterra Praktika Klinikoa
- Master P.N.L.
- Trainer

Tel. 675 70 68 07

Maialen Hernandez
PSIKOPEDAGOGOIA

Tel. 605 75 75 06

- Lengoia trastornoak
- Hiperaktibitatea
- Gizarteratze arazoak
- Autoestima arazoak
- Autoestima arazoak
- Dislexia

PSIKOTERAPIA ZENTRUA

HAUR, NERABE ETA HELDUENTZAKO PSIKOTERAPIA

943 20 22 66
Bidebarrieta, 27-B, 1º 3 atea
www.arratepsicoterapia.com

Lorena Izaguirre Garcia
PSIKOLOGOIA-PSIKOTERAPEUTA

Errebal, 15 - 1. ezk. EIBAR
Zuberoa, 4 ZARAUTZ
Tel. 943 831 618

Psikologia klinika eta
Psikoterapia zentroa

Oscar Mondragon Lili
GOIZEZ ETA ARRATSALDEZ
Urkizu, 13 - behea
Telf. 943206823 eta 686859023

Tf. 686 85 73 22
moreno_icciar@yahoo.es

Itziar Moreno
PSIKOLOGOIA
KOLEG. ZKIA. 1947

**GIZENTASUNA
ANTSIETATEA
AUTOESTIMA
ARAZOAK**

943 12 02 00
URKIZU, 13 - 1.

ORBEAKO
DORREETAN

centro médico eibar

Plastikoa

Elikagaiek gure dietan duten garrantzia argi daukagu, baina zer gertatzen da elikagai horiek gordetzeko eta egoera onean mantentzeko erabiltzen ditugun materialekin? Plastikoa buruz ari naiz.

Plastikoa edonon aurki dezakegu. Ozeanoan arrainen dietaren zati garrantzitsu bilakatzen ari da. Beraz, arrain horiek jatean, kontuan izan behar dugu osasunean gero eta eragin handiagoa izango duela.

Plastikoa toxikoa da: fabrikatzen dutenean, bere erabileran eta baita botatzen dugunean ere. Plastikozko ontziak, poltsak, kaxak...degradatzeko edo desegiteko 100 eta 1.000 urte bitartean behar dira.

100 plastiko mota baino gehiago daude, baina zazpi dira gehien erabiltzen direnak. Plastikoa mota bereizteko, produktu edo ontzien ertz batean edo azpialdean, biraka dauden hiru



geziz osatutako triangelu baten barruan dagoen zenbakiari begiratu behar diogu:

1 Zenbakidun plastikoa: PET edo PETE (Polietileno tereftalatoa). Jakien eta edarien ontzietako plastikorik ohikoena da. 1 zenbakidun plastikoa ez dira berrerabili behar, denborarekin desintegratuz doazelako eta toxinak aska ditzaketelako.

2 Zenbakidun plastikoa: HDPE (Dentsitate altuko polietilenoa). Ontziak egiteko erabili ohi da: etxeko garbiketarako produktuenak eta kimiko industrialenak. Esnearen, zukuen, jogurten edota uraren ontziak ere egiteko erabili ohi da, baita zabor poltsak eta supermerkatuetako poltsak egiteko ere.

3 Zenbakidun plastikoa: PVC (Binilo polikloruroa). Mota guztietako garbigarri eta olio ontziak egiteko erabiltzeko, mangera egiteko, medikuntza eki-

pamendurako, kableen estalkietarako... PVCak zenbait toxina bota ditzake. Ez da gomendagarria erretzea edo jakiek ukitzea.

4 Zenbakidun plastikoa: LDPE (Dentsitate txikiko polietilenoa). Zenbait botilatan, mota askotako poltsa eta bilgarrietan, kuboetan.... aurki daiteke. Mota hau plastiko segurua da.

5 Zenbakidun plastikoa: PP (Polipropilenoa). Hau ere plastiko segurua da. Likido eta jaki beroak edukitzeko ontziak egiteko erabili ohi da.

6 Zenbakidun plastikoa: PS (Poliestirenoa). Oso toxikoa da 80 °C-ko temperaturara iristen denean. Erabili eta botatzeko platerak eta basoak egiteko erabiltzen da, arrautza ontzietan, aspirinen ontzietan, CD kasetan...

7 Zenbakidun plastikoa: Besteak. Mota askotako plastikoz



jaione yeregi
TEKNIKARIA DIETETIKO
ETA NUTRIZIOAN

egindako plastikoa da. Ur botila, balen kontrako materialak, DVDak, eguzkitako betaurrekoak, MP3ak, ordenagailuak... egiten dira plastiko honekin. Aska dezakeen sustantzia nahiko arriskutsua da kontsumituz gero.

Gure esku dago plastikoa sortzen dizkigun arazoak ekiditea. Gure esku dauzkagun ekintzen artean: erostetak egitera joaterakoan norberak bere poltsa eramatea, ura kristalezko edo borosilikatozko ontziak erabiltzea.... Ekintza sinple hauekin, etorkizunari onura izugarria egin diezaikegu.

Lotsa?

Zeinek ez du noizbait lotsa sentitu? Esperientzia unibertsala da lotsa! Egoera deseroso baten aurrean, klasean, taldean egiten den azalpen baten aurrean, lanean...

Haurrei dagokienez, ezaugarri bat balitz ikusten da lotsa, "oso lotsatia da!", eta heldu batzuk ere euren burua "lotsati" bezala definitzen dute. Lotsabako edo lotsagabe bezalako hitza ere erabiltzen da. Lotsa eza izateko, lotsa beharrezkoa izango balitz bezala (gehiegizko jarrerak, exajeratuak...).

Zer da lotsa?

Kontzeptu konplexua da, ahultasuna ekiditeko **babesa** da. **Gutxitua autokontzeptua** dauka bere baitan (askotan "norbera txikiagoa egitea" bezala deskribatzen dena). Grafi-

koki azaltzeko, norbaitek gaiztoa deitzen badizu, gaizto bilakatzen zara. Gutxiesten gaituztenek esaten diguten hori bilakatzen gara, enkajatzeko modu bat da, konplazentzia modu bat; hau da, **tristura, beldurra eta haserrea bezalako afektuak lotsa bilakatzen dira** (onartua ez izatearen tristura; baztertua izatearen, naizen



modukoa izatearen beldurra. Eta umiliazioagatik sentitzen dugun haserrea ezeztatu eta ukatu egiten dugu).

Lotsaren oinarria sinismena da –zerbait txarra daukat–

Zeintzuk dira zergatiak?

- Kritika eta umiliazioa
- Barregarri geratzea
- Errua botatzea
- Norbait definitzea
- Albo batera uztea

Hauen gainean pentsatzen badugu, norbait definitzea, nahiz eta ondo egin, hori ere umiliagarria izan daiteke, eta ondorioz, lotsa sortu dezake. Norbait baztertzea ere lotsa sentitzeko zergatia izan daiteke, adibidez, talde bateko parte izan nahi dugunean eta gutxiespena sentitzen dugunean. Umiliazioa portaera da, eta



aurrate garitaonandia
PSIKOLOGO/PSIKOTERAPEUTA

lotsa barne erreakzioa, non autoestimua galdu egiten den.

Zer da lotsaren kontrakoa?

Ahalduntzea

Lotsaren adibideak leku askotan aurki ditzakegu, genero kontuak, etiketa diagnostikoak, etiketa akademikoak, esperientzia traumatikoak..., edo autoestimua gutxitzen duten, lotsa sortzen duten eta ahalduntzea murrizten duten tantan sotil eta arruntak. Aurrerago egingo dugu berba ahalduntzeari buruz.

Eibarko Txirrindulari Elkarteak antolatutako emakumeentzako proba berria izango da etzi

Domeka goizean Eibarko Hiria Sari Nagusiaren lehenengo edizioa jokatuko da Eibarren, Txirrindulari Elkarteak denboraldi honetarako egutegian kokatu duen proba berria. Emakumezkoendako Euskalduna Torneoaren barruko probak bi lasterketa izango ditu: 09:00etan hasiko da kadeteen mailakoa eta 10:45ean junior, 23 urtetik azpiko eta elite mailetako txirrindulariak hartuko dituen. Proba goiztiarrenak 33 kilometro izango ditu, Bergararaino joan eta bueltatzeko. Lehenengoak 10:00k bueltan helmugaratuko dira Toribio Etxebarria kalean. Nagusiagoen lasterketak 78 kilometro izango ditu eta, Bergarara heldu ondoren, handik Maltzararaino itzulita, gero Ondarruraino joko dute, San Miguel gaina pasatu eta Elgoibartik gurera etortzeko zuzenean, hor ere T. Etxebarriako helmugaren bila. 13:00etarako espero da lehenak helmugaratzea.



ASTEBURUKO AGENDA

FOBALLA

1. Maila

Levante - Eibar (gaur, 21:00)

Emakumezkoen 2. Maila

Zarautz - Eibar (etzi, 17:30)

2. B Maila

Izarra - Vitoria (etzi, 17:00)

Emakumezkoen Lurralde Maila

Eibar - Hondarribia (bihar, 16:15)

Erregional Gorengo Maila

Soraluze - Eibar Urko (bihar, 17:00)

1. Erregionala

Intxurre - Urki (etzi, 15:00)

Eibartarrak - Elgoibar (bihar, 18:00)

JUBENILAK

Ohorezko Maila Nazionala

Pamplona - Eibar (etzi, 11:30)

KADETEAK

Euskal Liga

Gernika - Eibar (bihar, 16:00)

FOBALL-ZALETUA

Bar Txoko - Reformas Hiru (bihar, 09:00)

Azkena Adahi - Alkideba (bihar, 09:00)

Durango - Feredu Solutions (bihar, 10:30)

Sporting - Garajes Garcia (bihar, 12:00)

Slow XOK - Bar Arkupe (etzi, 09:00)

Bar Areto - Esmorga (etzi, 10:30)

Ipur Sagardot. - Tankemans (etzi, 12:00)

ESKUBALOIA

1. Nazional Maila

Somos Eibar - Dominicos (bihar, 19:00)

Emakumezkoen Euskadiko Txapelketa

Deusto - Avia Eibar (bihar, 18:30)

Gipuzkoako 1. Maila

Haritza - Aritzbatalde (bihar, 17:15)

ERRUGBIA

Ohorezko B Maila

AVK Bera Bera - Avia Eibar (bihar, 17:00)

SASKIBALOIA

Gipuzkoako 3. Maila

Aloña Mendi - Katu Kale (bihar, 16:00)

WATERPOLOA

Euskal Herriko 1. Maila

Urbat Urkotronik - CW 9802 (bihar, 20:25)

Emakumezkoen Euskal Herriko 1. Maila

Urbat IKE - Claret Askartza (etzi, 16:30)

PILOTA

Binakako txapelketa Astelena

Ezkurdia/Zabaleta vs Altuna/Martija (etzi, 17:00)

HIRU-TXIRLO

Gipuzkoako 49. txapelketa

Soraluzeko Ezozin (bihar, 17:00)



Paula, ezkerrean, lagun batekin Valentzian. 1941.

Paula Lamarain raketista aurreko domekan hil zen

Paula Lamarain Astigarraga raketista izandakoa San Juan kalean jaio zen eta 14 urterekin debutatu zuen profesional moduan Salamanca. Hurrengo denboraldiak Madrilen, Valentzian eta Tenerifen jokatu zituen, bere kirol-ibilbideko azken urteak Valentzian egiteko, han ezkondu baitzen Cayetano Menarquez foballariarekin. "Pauli" moduan ezaguna frontoietan, 24 urterekin erretiratu zen eta Eibarrera bueltatu, Menarquez Eibarrekin jokatzen hasteko. Alargun geratu zen 2010ean eta gaur egun Isasi kalean bizi zen. Goi Argi emakumeen elkarteko partaide ere bazen, eta sarritan elkartzen zen bertan. Bere aldeko hileta-elizkizuna astelehen egin zen San Andres parrokian.

Eibar Eskubaloiko kadeteen arteko derbia azken minutuan erabaki zen

Markagailuak hainbat gorabehera izan zituen Komat eta Teknikerren arteko norgehiagokan, baina azkenean multzoaren sailkapenean atzerago dagoen Teknikerrek irabazi zuen 26-27, talde bietako atezainak protagonista izan zituen lehia. Maila bereko nesken taldeetan, Avia 14-15 nagusitu zen Astigarragan eta lider jarraitzen du. Eibar Eskubaloiak, berriz, 25na berdindu zuen Ipuruan Elgoibarrekin, "oso borrokatutako partidu zoragarrian". Harrobiarekin jarraituz, infantiletan ere emaitza

onak izan zituzten Eibarko taldeek: nesketan bik irabazi zuten (Bengoak 14-20 Errenterian eta Urkotronikek 17-32 Hernanin) eta Ametsak 14 berdindu Urolarekin; mu-

tiletan, Hierros Servandok kanpoan irabazi zuen eta Arregik galdu etxean.

Senior mailako taldeei dagokienez, 1. Nazional Mailako Somos-ek amore eman behar izan bazuen ere Tolosa indartsuarekin Ipuruan (24-29), emakumezkoen Aviak Galdakao egurtu zuen Euskadiko txapelketaren bigarren fasearen lehen partiduan (45-19), Itsasok 17 gol sartuta. Eta Gipuzkoako 1. Mailako Haritza garaile bueltatu zen Tolosatik (25-30) eta hirugarren da sailkapenean.





Txapelketako urgentziatzko neurketa hartuko du Astelenak

Binakako txapelketa nagusiko bigarren jardunaldian sartuta, Eibarko Katedraleak lehen jardunaldian galtzaile izandako bikoteen arteko norgehiagoka jasoko du domekako jaialdiaren partidu nagusian. Ezkurdia-Zabaleta eta Altuna III-Martija Aspeko bikoteen artekoak urgentzia ikutua du, lehenengo porrotaren ondoren galtzaileek finala jokatzeko aukera gutxirekin geratuko delako. Jaialdiko lehenengo partiduan Mendizabal III-Merino eta Jaka-Irusta bikoteek nor baino nor jardungo dute eta jaialdiari amaiera emango dionean promozio txapelketako partidua izango da: Agirre-Iturriga Ugalde-Erostarberen aurka.

Odei Jainagak 5. egin zuen jaurtiketen Europako Kopan

Aurreko domekan Leirian (Portugal) jokaturako txapelketan eibartarrak bosgarren postua lortu zuen, orain arte egin duen hirugarren marka onenarekin (76,20 metro). Jainagak lehiaketa oso erregularra egin zuen Espainiako selekzio absolutoarekin parte hartzen zuen bigarren aldian, eta lau jaurtiketetan xabalina 70 metrotik haratago jaurti zuen. Johannes Vetter alemaniarra izan zen onena Leirian eta, 92'70 metroko jaurtiketarekin, txapelketetako marka egin zuen; horrez gain, gaur egungo munduko txapelketak urteko marka ere ezarri zuen.



Xakeko lehen taldea indarberrituta

Aurreko zapatuan jokaturako Gipuzkoako Taldekako xake txapelketaren 9. jardunaldian, eibartarrek 2'5-1'5 irabazi zioten sailkapenaren aurrealdean dagoen Gros D taldeari: Jon Arana eta Ion Esturo irabazle izan ziren euren partidetan, Mikel Larreategik berdindu egin zuen eta Jose Antonio Garridok galdu berea. Azken ga-

raipen horrek "indarra eman dio" lauko-teari jokatzen duen 1. Mailari eusteko borrokan, amaitzeko jardunaldi bi geratzen direnean. Bihar Arrasaten dute hitzordua eta, ondoren, tarte bat izango dute jokatu barik azken jardunaldira iritsi arte: apirilaren 14an Santikutz-Legazpi hartuko dute Klub Deportiboan.

Gipuzkoako 49. hiru-txirlo txapelketa abiatuko da bihar Soraluzeko Ezoian

Guztira bederatzi jardunaldi izango dituen hiru-txirlo txapelketak bihar hasi eta Azkoitiko Floreagan maiatzaren 26an jokatuko den "azkeneko tiraldiarekin" amaituko da. Biharkoaren ondoren, Eibarko Asola Berrik bigarren jardunaldia hartuko du hilaren 24an. Aste Santuko zubitian ez da tiraldirik izango eta, ondoren, San Joxepe (Bergara), Lastur (Deba), San Pedro (Elgoibar), San Andres (Soraluze), San Miguel (Elgoibar) eta Garmendipeko (Azpeitia) bolatokiek hartuko dituzte hurrengo jardunaldiak Floreagan amaitu aurretik. Ohikoa denez, behin txapelketa amaituta, hurrengo asteburuan, ekainaren 2an, Lehendakari Saria jokatuko da, bazkaria eta omenaldiarekin batera, oraingo honetan Elgetako bolatokia.



Katu Kaleren garaipen garrantzitsua

Aurreko zapatuan Donostiako Antigua Luberrri A taldeari 62-58 irabazita, eibartarrek maila igotzeko borrokan jokatzen diharduten bigarren fasean hainbeste behar zuen zuten garaipena lortu zuten, orain arteko bost partidutik bigarrena. Fasea amaitzeko bost partiduren faltan Katu-Kalekoen itxaropenek gora egin dute zertxobait lan asko eskatu zizkien garaipenarekin: atsedendian 33-24 aurreratuta izanda ere, hirugarren laurdena 47-48 atzetik amaitu zuten. Aitor 20 punturekin, Will 18rekin eta Unai 13rekin izan ziren saskiratzaile onenak.

Bestalde, domeka goizean gazteen mailako partidu interesgarria jokatuko da kiroldegian. 11:00etan hasita, Eibar Saskibaloia Kiak 1. urteko GBC Mutilak izango du aurkari.



Bar Txokok galdu egin zuen zaletuetan

Dagoeneko ez dago partidurik galdu ez duenik aurtengo foball-zaletuen ligan. Lider argia den Bar Txokok ere galdu baitzuen azken jardunaldian Slow XOK-ekin, Davidek sartutako golarekin. Hala ere, liderrak zazpi puntuko aldea ateratzen dio bigarrenari.

Deporreko Batzarra hilaren 23an

Eibarko Klub Deportiboak urteko batzarra egingo du datorren asteko barixakuan. Bigarren deialdia 19:30ean hasiko da eta aurreko akten onartzea, 2017ko ekin-tzen memoria eta kontuen gora-beherak daude gai-ordenean. Jarraian, ez-ohiko batzarrean, lokalaren inguruan hartutako konpromisoak eta kontserje-tabernariaren kontratazioaren inguruko informazioa emateaz gain, zuzendaritza batzordearen hainbat kide hautatuko dira, tartean presidentea, presidente-ordea, idazkaria eta diruzaina.



Gimnasta federatuek bikain hasi dute denboraldia

Aurreko asteburuan ekin zioten denboraldiari Ipu-ruako gimnastek maila indibidualen eta, Leioan jokatutako Euskadiko txapelketan, Arrate Baroja azpitxapel-
dun izan zen. Oinarrizko kadete taldeak, berriz, Euskal Kopa bereganatu zuen eta talde eta ariketa berarekin jokatuko du apirilean Espainiako Kopa. Absolutu mailakoen Euskal Ligako lehen fasean, bestalde, Nahia Arguizek lehen postua eskuratu zuen eta postu berean sailkatu zen juniorretan Lur Aranburu pilotarekin egindako ariketan.

Asteburu biribila errugbian

Elurragatik atzeratutako Ohorezko B Mailako partiduan, Eibar Rugby Taldeak 27-26 irabazi zion sailkapene-ko goialdean dagoen AVK Bera Berari aurreko zapa-
tuan eta, lortutako bost punturekin, erosoago dago sailkapenean. Gizonezkoen taldeak egiten diharduen denboraldi onari gehitu behar zaio emakumezkoen taldeena. Gemnikan jokatutako Euskal Ligako azken partiduan ere garaile izan zen, 24-39 emaitzarekin.



Gisasolatarrak nagusitu berriro ere Dianako proban

Azken denboraldietako emaitzei jarraituta, oraingoan ere Gisasola aita-semeak nagusitu ziren Diana ehiza elkarteko txapelketan. 22 parte-hartzaile izan zituen aurreko zapatuko proban, Iñigo Gisasolak zazpi eper ehiza-
tu zituen eta senior mailako txapela irabazi zuen Enrique Isasi (sei eper) eta Iñigo Gomezen (bost) aurretik. Beteranoetan bere aita Jose Luis nagusitu zen, hiru eperrekin. Laurak Debabarrenako txapelketarako sailkatu dira.



Carlos Suarezek abentura munduan bere muga guztiei egin izan die aurre. Era guztietako bidaiak eta zeharkaldiak egin ditu eta, horrez gain, hainbat liburu kaleratu. Klub Deportiboko mendi batzordekoek antolatutako Mendi Jardunaldien barruan, hitzaldia eskainiko du datorren eguenean, hilaren 22an, Portalean, 19:00etan hasita. Hori aprobetxatuz, berarengana jo dugu.

CARLOS SUAREZ (mendi-abentureroa) "Arriskua gure laguna da"

- Zein asmo duzu aurkezteko "Montañas de libertad" izenburuko hitzaldian?

Mendia ulertzeko moduak eskainiko ditut, batez ere nire espe-
rientziatik abiatuta. Hor egongo dira, zalantza izpirik gabe, edertasuna adierazten duten gauzak eta baita hain gozoak ez direnak ere, arriskuak berarekin dakartzan sententzio eta zergatiakin.

- Mendiarekin izan duzun bilakaeran, zer jotzen duzu positibotzat eta zer negatibotzat?

Batzuekin zein besteekin topo egin, guztiek laguntzen dizute haz-
ten, baita ingurukoek izan dituzten istripuek ere. Askotan ez da erraza izaten, baina hala eta guzti badakizu traje horri egokitu behar zarela. Egia da, hala ere, gero eta jende gehiago ibiltzen dela mendian, eta horrek bai ekarri duela edukazio-falta ugari eta askotan giza-
zabidez ez jokatzea.

- Mendiarekin lotutako esparru guztietan izan zaitugu. Gaur egun zertan zaude zentratuago? Baduzu gertuko erronkarik?

Hego-ekipoarekin nabil azken aldia, hegan egiten. Baita nire us-
tez mendi politenak direnak bisitatzen. Himalaiara itzultzeko gogo handia daukat, bertara igo eta gero handik salto egiteko.

- Mendian egin duzun guztiagatik, zertaz zaude harroago? Zeintzuk dira zure lorpen aipagarrienak?

Mendi askotan egin ditudan eskaladak bereziak izan dira niretzat, jauzi baseak ere garrantzizkoak izan dira nire ibilaldian, soka barik egindako eskaladak ere badute meritua eta... guzti horretatik aparte, guztiarekin egindako transmisio-lana nabarmenduko nuke: argitaratu ditudan liburuan jasotakoan asko ipini dut, ni naizena.

- Arriskua mendian: zer iritzi duzu horren inguruan? Zuk asko probatu duzu edabe horretatik...

Horko pertzepzioa aldatzen joaten da urteekin. Zenbat eta arrisku-
egoera gehiagotik pasatu, orduan eta hobeto ezagutzen zoaz zure burua, gero eta hurbil-erazagoa bihurtzen zara. Arriskuari erreparatu gehiagi ipintzen diogulakoan nago: jakin beharko genuke hor dagoela, giza-egoera bat dela. Eta, hori bai, gure ezinbesteko laguna dela.

“Antzezanak ez du inor epel utziko”, ziurtatu digu Ana Pimenta Vaiven antzerki ekoiztetxeko sortzaileak. ‘Mila eta gau bat gehiago’ laneko Sherezade oinarri hartuta, gaur egungo bikote-harremanen inguruko gogoeta egin dute Chapitô konpainiarekin elkarlanean. XLI. Antzerki Jardunaldietan eskainiko den euskarazko azken antzezlana izango da, eta hilaren 21ean 20:30ean egongo da ikusgai Coliseoan.

- ‘Mila eta gau bat gehiago’ ipuin sortaren narratzailea da Sherezade. Antzezan honetan ere rol bera dauka?

Sherezade erreferentzia da guretzat, inspirazioa, baina urrutiko inspirazioa. Bizirauteko istorioak kontatzen zituelako erabili dugu Sherezaderen izpiritua, eta izpiritu horrekin busti nahi izan ditugu antzezaneko pertsonaiak.

- Antzezaneko akzioa sukalde batean gertatzen da. Nolako saltsatan sartzen dira pertsonaiak?

Emakumea sukalde horretan harrapatuta dago, sultanen bahituta duen emakume argi hori bezala. ‘Mila eta gau bat gehiago’ lanean errepresioa sultanen eragiten badu, gure antzezaneko bizitza berak behartzen die pertsonaiei hainbat gauza egitera bizirauteko.

- Kutsu filosofiko edo transzendentala nabaritzen zaio lanari.

Aurrekoa entzunda itxura hori eman dezake, baina tragikomedia bat da. Chapitôrekin elkarlanean egindako lana da eta euren lengoia surrealista eta komikoa erabiltzen dute sarritan. Publikoak ez du modu konbentzionalean kontatutako ikuskizun bat ikusiko; hainbat egoeren bertsio libreak, Chapitôren umore ganberroa, buruko-asoziazioak eta antzezaneko bertan egoteko gogoia aurkituko du.



ANA PIMENTA

(antzerkigilea):

“Lan moralizanteak ez zaizkit gustatzen, jakin-mina sortzen dutenak atsegin ditut”

- Nolako garrantzia dauka tipulak antzezan honetan?

Ikuskizunak hainbat azal ditu. Horietako batean oso modu idiliko eta neurritz gainezkoan harremana hasten duen bikote bat dago. Denborak aurrera egin ahala monotoniagatik eta tradizioen, aurreiritzien eta gizonezkoa bakarrik mugitzen den lan munduaren pisuagatik harremana hondatzen doa. Gizonezkoak bakarrik dauka mantenua bilatzeko rola eta krisiak familien bizimoduari egiten dion kaltea irudikatzen dugu. Alabaren pertsonaia oso garrantzitsua da baita ere eta publikoari dagokio paper hori egitea.

- Eta zer aurkituko dugu tipularen beste geruzetan?

Gaur egungo bikote-harremanen inguruko gogoeta egiten du antzezanak. Oso momentu komikoak daude eta ikusleak

identifikatuta sentitzen dira. Rolaren inguruan berba egiten dugu, estereotipoetatik kanpo, eta emakumeen biktimismotik haratago joaten saiatzen gara. Lan moralizanteak ez zaizkit gustatzen, jakin-mina sortzen dutenak atsegin ditut. Antzezanak ez du inor epel utziko.


- Chapitôrekin elkarlanean sortutako antzezlana da. Zer eskaintzen du konpainia horrek?

Antzerki europarra egiten du Chapitôk. Funtza eta forma batzen dute. Garrantzitsuena ez da kontatzen dena bakarrik, nola kontatzen den ere inportantea da. Guretzat luxua da beste lerro batean mugitzen diren sortzaileekin lan egitea, hemen antzerki errealistagoa egiten delako.

- Orain dela 21 urte Vaiven ekoiztetxea sortu zenuten Iñaki Salvadorrek eta zuk. Nola joan dira urte hauek?

Alde batetik, pozik nago gauza asko altxatu, mila begirada ezberdin aurkitu, kolore askoko publikoaren aurrean antzeztu eta sentibilitate ezberdineko zuzendariak aurkitu ditudalako. Pribilegiatua sentitzen naiz eta antzerkiarekiko pasioa da nire motorra. Baina bestetik, pisua sentitzen dut. Beti ikusgai egotea, funtzio bakoitzean gauza berriak kontatzen arriskatu beharra, lan bakoitzak izan dezakeen bidearen zalantza... nahiz eta antzerkiaren munduan izen bat eduki, gauza horiek beti daude hor.





Beste bost lan Antzerki Jardunaldietako azken astean

Bihar hasi eta datorren asteko barixakura arte ia egunero izango dira funtzioak 49. Antzerki Jardunaldietako azkeneko txanpan. **BIHAR** umeendako antzerkia (6 urtetik aurrera) eskainiko dute Gorakada Teatrokoek Coliseoan. Funtzioa, jakina, ohikoa baino lehenago hasiko da, oraingoan 17:00etan. Ia ordubeteko iraupena du (55 minutu) eta Fran Lasuen eibartarrak ipiniko dio musika. Ulises-en bidaia *“metafora izateaz gain, bizitzan sortzen diren zailtasunei nola aurre egin”* islatuko digu, euskeraz gainera. **ETZI** funtzio bikoitza izango dugu, Fábrica de Magos bizkaitarrek magia egingo dutelako *“Fabricando Ilusiones”* lanarekin 17:00etan eta 21:30ean. Arkadio manipulazaila, Sr. Pérez bentrilokua, Kayto el Mago zirku-familia batean sortutako pailazoa eta Mago Valen zeremo-



El oxímoron de la abuela

Martxoaren 17an

“Ulises-en bidaia”
17:00etan Coliseoan

Martxoaren 18an

“Fabricando ilusiones”
17:00 eta 20:30ean
Coliseoan

Martxoaren 19an

“Isabelita la miracielos”
20:30ean Unibertsitateko
Hezkuntza Esparruan

Martxoaren 21ean

*“Sherezade eta
tipularen azalak”*
20:30ean Unibertsitateko
Hezkuntza Esparruan

Martxoaren 23an

“El oxímoron de la abuela”
20:30ean Coliseoan



*Isabelita
la miracielos*



nia-maisuak dena emango dute, Brando musikaria eta Silvana mimoarekin batera. Estreinaldia izango da Euskal Herrian.

ASTELEHENEAN Hezkuntza Esparruko Narruzko Zezenekok Ricardo Lopez Arandaren *“Isabelita la miracielos”* antzeztuko dute. Fartsa tragiko hori etxean, Unibertsitatean bertan, eskainiko dute eta seikotea (bost emakumezko eta gizonezko bakarra) Manolo Murillo eta Juan Ortigaren zuzendaritzapean egingo dute lan. Jakina, estreinaldia izango da.

EGUAZTENEAN euskarazko lan bikaina dastatzeko aukera izango dugu, Viven Producciones-ekin. *“Sherezade eta tipularen azalak”* Jose Carlos Garcia sortu eta zuzentzen du, Miren Tirapuk, Xabi Donostiak eta Iraia Eliasek osatutako hirukoteak interpretatzeko, Iñaki Salvador handiaren musikak ezarritako giroaz lagunduta. Tragikomedian

asko nabaritzen da Chapitô portugaldarren lan egiteko modua. **Obraren gaineko informazio gehiago aldameneko orrialdeko elkarrizketan aurkitu dezakezue.**

ETA BARIXAKUAN Jose Luis Gonzalez *“Poxpolo”* Eibarko udal kultur-teknikariaren sorkuntza antzeztuko dute La Red Antzerki Elkarteoak. Maite Lorezok eta Juanma Canok obraren hainbat saio eszenaratu dituzte dagoeneko, arrakasta handiarekin. 80 minutuko funtzioan ondo loturiko drama taularatzen dute, egilearen amonaren benetako istorioa abiapuntutzat hartuta. Gerra Zibilar eta gerraosteari jarduten badute ere, eskainitako mezua guztiz positiboa da. Kontatu ezin izan ziren, edo nahi ez ziren, istorioak erakitzen dituzte oroitzen horik baliatuz. Aipatutako azken bost lan horiek itxiera emango diote aurtengo Jardunaldiei, inoiz baino kontzentratuago eskainitako ikuskizunekin, Aste Santurako gortinak jaitsi ahal izateko.



ANDER MAIORA
(idazlea)

- *"El páramo" izenburua duen liburua argitaratu duzu. Nolako basamortua irudikatzen da liburuan?*

"El páramo"-k gogoetak, aforismoak eta apunteak batzen ditu. Liburuak, aurrera egin eta gure kulturaren basamortua atzean utzi nahi duen pentsaera agertu nahi du. Basamortu hori, historiak ekarri duen horizontaltasun nihilistaren emaitza da. Horrela, bere erlatibismoa dela eta, ezin da egirik aldarrikatu, eta egiten ditugun aldarrikapenak, adierazpenak edota baieztatzen ditugun fedetak, besterik gabe pilatzen dira, hondar aleak izango balira bezala.

- *Aforismoak dira protagonista liburuan. Nondik datoz gogoeta horiek?*

Egunez egun hartutako apunteak dira eta irakurtzen, entzuten edo ikusten dudana gauzetan oinarritzen dira. Printzipioz, ez dute elkarrekiko loturarik. Ondoren haien gainean egindako lanari eta

"Gure kulturaren basamortua atzean laga nahi duen pentsaera agertu nahi du liburua"

Bere bigarren liburua argitaratu du Ander Maiorak, 'El páramo'. Lehen lanean bezala, 'La clemencia del tiempo', aforismoak dira protagonista, balio literarioa duten esaldi edo esaera gogoangarriak. Egunerokotasunean sortutako gogoetan islatzen ditu lan honetan idazle eibartarrak, *"kontzientziak ziztatu, pentsamendu berriak sorrarazi, tripak nahastu edo hausnarketarako hauspoa izateko"*.

gogoetari esker, liburuak erakusten duen forma eraikitzen da; modu horretan, jardunaldi kontsekutiboekin ibilbidea osatuz. Hortik aurrera, behin eta berriro egindako errebisioek amaitu ezinezko alaketak sortzen dituzte, horregatik, sarritan, hasiera baten osatutako liburuak ez dauka inongo antzekotasunik argitaratutakoarekin.

- *Hamabi jardunalditan banatzen da liburua. Zein da horren asmoa?*

Banatze horrek, alde batetik, basamortutik ihesi nahi duen ahotsaren noraezko ibilbidea adierazi nahi du. Bestetik, irakurleari atsedanak emanez, ibilbidea errazagoa eta erosagoa egin nahi dio.

- *"La clemencia del tiempo" izan zen zure lehen liburua. "El páramo"-k liburu horren bidea jarraitzen du moduren baten?*

Bai, aforismo-liburua den neurrian. Aurreko liburua bloke tematikoetan bana-

tuta zegoen eta apunteak, orokorrean, luzeagoak ziren. "El páramo", aldiz, pentsamendu laburrez osatuta dagoen gogoeta-katearen irudia islatzen du. Hala ere, izaera eta kutsu bera daukatela us-te dut.

- *Zure gogoetak islatzen dituzu liburuan, baina jaso duzu irakurleen erantzuna?*

Argitaratu denetik ez da irakurleen ekarpenak jasotzeko denbora nahikoa pasatu, nahiz eta, jada, liburuaren inguruko hainbat kritika irakurri ditudan. Irakurle bakoitzak bat egingo du liburua jasotzen dituen gogoeta guztiekin, hainbatekin edo berekiko guztiz aldeniak ikusiko ditu, bakoitzaren sentsibilitatearen baitan. Izan ere, hori da edozein gogoetaren helburua: kontzientziak ziztatu, pentsamendu berriak sorrarazi, tripak nahastu edo, besterik gabe, hausnarketarako hauspoa izan.

Kous-kousa prestatzen ikasteko tailerra

Martitzenean, 18:00etatik aurrera Portaleko sukaldean emango duten "Munduko sukaldaritz" tailerrean, Marokoko janari tipikoe-tako bat, kous-kousa nola prestatzen den ikasteko aukera izango da. ...eta kitto! Euskara Elkartearen eskutik egingo den saioan parte hartzeko aurretik izena eman beharra dago, ongietorri@etakitto.eus helbidera idatzita edo 943200918 telefonora deituta



Periko Iriondoren proiektzioa hilaren 21ean

Eibarko mendizale eta argazkilariak "Eibar neguan, 2017-18" ikus-entzuzko proiektzioa eskainiko du datorren asteko eguaztenean, hilaren 21ean, Klub Deportiboan. Ekitaldia arratsaldeko 19:00etan hasiko da eta bertan azken hilabeteetan egileak ateratako hainbat irudi ikusi ahal izango dira. Berak dioen moduan, *"Eibar zatarrak dela dioten askori ahoa ixteko parajeak eta edertasuna"* erakusteko asmoz.



Shirley Davis & The Silverbacks taldeak azkenean hilaren 24an eta Coliseoan joko du

Aurretik domekarako Portalean iragarrita bazegoen ere, "Portalea Musika Klubaren" urteko lehen hiru hilabeteak amaiara emango dion kontzertua egun bat aurreratu eta tokiz aldatu dute. 25ean izan beharrean, hilaren 24an joko du musika beltza egiten duen taldeak eta, horrez gain, Portalean izan beharrean Coliseoan izango da eta, azkenik, ordutegia ere aldatuko da: 19:30ean izan beharrean, 24ko kontzertua 20:30ean izango da. Jatorriz jamaikarra den Shirley Davis kantari australiarrek The Silverbacks seikotearekin egiten diharduen birari amaiara emango dio Eibarko kontzertuarekin. Aukera bikaina izango dugu, beraz, egun horretan soul, blues eta funkarekin gozatzeko.



Sormenezko Tailerra Pazko Astean

Maite Arriaga artista eibartarrak Sormenezko Tailerra antolatu du Pazko Asterako (apirilak 3, 4, 5 eta 6). Klaseak goizez izango dira, 10:30etik 12:30era eta prezioa 12 eurokoa da, eguneko (lau egunetarako prezioa 45 eurokoa da). Urtarrilaz geroztik Biharriaren (Ubitxa, 16) dago Arte eta sorkuntza Maite Arriaga Tailerra, baina tokia aldatu arren orain arteko ekintza guztiei eutsi die. Informazio gehiago eskatzeko zein izena emateko 622053933 telefonora (Maite) deitu daiteke.



Txistulariek kontzertua emango dute domekan

Domekan 12:30ean kontzertua emango dute Usartza txistulari taldekoek udaletxeko arkupeetan, Elena Perezek zuzenduta. Emanaldi-rako prestatu duten egitaraua honakoa da: "Eibarko bikotea" (Agustin Zuluaga), "Kanta zahar bilduma" (J.A. Erauzkin), "Oslo bideko polka" (Pablo Sorozabal), "Goxokia" (Iñaki Otaño), "Kontrapas" (Raimundo Sarriegi), "Txoritxoaren ihesa" (Pepe Andoain) eta "Don Martin" (balsa eta pasodoblea, Sabin Bikandi).

"Kirola eta euskara" mahai-ingurua

Eibarren AKEBAI-ko kirol mahaiak eta Eibar Kirol Elkarteak antolatuta, "Kirola eta euskara" mahai-ingurua egingo da datorren eguenean, 18:30ean Ipuruan, Eibar KE-ren ekitaldi aretoan. Saioa Hamaika Beraldi ekimenaren barruan antolatu dute eta sarrera libre izango da.



Eibarko Kantuzaleen saioa

Gaur arratsaldean, 17:00etan Eibarko Kantuzaleak abesbatzak kantu emanaldia eskainiko du Legarren, San Andres zaharren egoitzan ("ospitalian").

Isadi
LORADENDA

- Lora eta landare natural eta lehorrak
- Ezkontzetarako lorak

San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

Radio Eibar
CADENA
SER
104,0 FM

San Andres Gozotegia

- tartak
- enkarguak
- etxera

Bidebarrieta, 28
☎ 943 20 79 73



FELIX MORQUECHO

Erlijio berri bat

"Erlijio berri bat osatuko dut" esan nuen. Ez dut ondo gogoratzen zeri buruz ari ginen egun hartan. Gurasoen arteko solasaldian, ume batzuk jaunartzea egingo zutela... eta hortik abiatuta tontakeriak esatera tarre eskasa dago. "...eta kitto!-ko zutabea tokatzen zaizunean erlijio berri horrena idatzi ezazu" bota zidan batek. Eta horrek honaino ekarri nau. Zer eskatuko nioke erlijio berri bati? Utzi ditzagun alde batera super-aitasantu-mafiosu izatearena (bai, horixe da egun hartan pentsatu genuen lehena). Ea, itxurakeriak ere alde batera utziko ditut, nahiko 'postureo' daukagu egunero moda berriak asmatzeko. Denboraz ere larri nabil, orduan ez mezarik eta ez horrelakorik. Orduan, zer jarriko diogu erlijio honi? Zuzena izatea? Beno, ez da hasiera txarra. Nire erlijioakideak zuzenak izan beharko dira egiten duten gauzetan. Ondokoa errespetatu, ahal den neurrian besteak lagundu, inguruan ditugun guztien alde egin, nahiz eta hori ez izan niri gehien komeni zaidana. Errezorik? Eh! Denboraz larri gabiltzala eta zutabea bukatzen ari dela. Orduan esandakoarekin geratuko naiz, baina pixkatxo bat begiratuta zer eskatu dudana, zein izango da nire erlijio berri honen izena? Erraza, hiritar txukuna. Ea ba, izen ematea laster irekiko dugu.

Emakumeak protagonista dituzten hiru erakusketa ikus daitezke Portalean

Martitzen arratsaldean banatu zuten Martxoaren 8ko kartel lehiaketako saria Portalean: Jone Bengoaren kartela izan da aurten saritutako lana eta irabazleak pozarren jaso zuen saria, Patricia Arrizabalaga Berdintasun arloko zinegotziaren eskutik. Kartelaren egileak argazki zaharrekin egindako kamiseta jantzita duen emakume gaztea irudikatu du, 'Eibarko Emakumeak: izan direlako, gara' izenburuari jarraituta. Irabazleari saria banatzearekin batera, lehiaketara aurkeztutako beste lanekin osatutako erakusketa zabaldu dute. Martxoaren 28ra arte Portaleko erakusketa aretoan ikusteko moduan izango dira lanok, martitzenetik domekara, 18:30etik 20:30era. Kartel-erakusketarekin batera, Emakumeen Etxeen Sareak antolatuta iaz egin zen



"Artestura Feministak" lehiaketara aurkeztutako artelanak ipini dituzte ikusgai eta hirugarren erakusketa bat ere badago: "Gaza Amal", Susana Martinek UNRWA Euskadi-rako egin duen komikian oinarritutako erakusketa, hain zuzen ere.



Sasoiko lore eta landareak biltzen jardun zuten berbalagunek asteburuan

Konpainia ederrean, sendabelarrak biltzen ibili ziren Berbetan programetako hainbat kide aurreko zapatuan. La Salle Azitain ikastetxetik gora joan eta han inguruan ibili ziren pare bat orduz landareak biltzen, Mentxu Amuategi adituak lagunduta. Konturatu orduko uste zutena baino sendabelar gehiago batu zituzten, gainera. Parte-hartzaileek, ondo pasatzeaz gain, asko ikasi zuten eta baita praktikan jarri ere, bakoitzak bere sendabelar-koaderno osatu zuen-eta. Eguna biribiltzeko, Asola Berri elkartearen bazkalduta zuten, eta landareak ez ziren falta izan jatekoan ere! Joxean Urkiak prestatu ziren bazkari goxoa.



Tantanez Tantan bideo lehiaketara aurkezteko epea ixtear da

Maiatzaren 19an ospatuko den "gantxilaren jaiaren" harira antolatu den I. Tantanez Tantan bideo lehiaketa azken txanpan sartu da eta lanak aurkezteko azken eguna eguazte-ena, martxoaren 21a izango da. Lehiaketan Eibarko DBH 3. eta 4. mailetako eta batxilergoko ikasleek har dezakete parte, asko jota 30 segundoko iraupena duen bideoa euskeraz grabatuta. Asmoa bideoak ekitaldiaren promoziorako erabiltzea denez, hainbat datu derrigorrez aipatu beharko dira: ekitaldia izango den eguna (maiatzak 19), ordua (13:00ean hasiko da), gantxilak eskurik esku beteko duen ibilbidea (Urkizutik Untzagara) eta, jakina, Tantanez Tantan ekimene-ko protagonista nagusia den gantxila. Bideoak elkarte@etakitto.eus helbidera bidali behar dira (artxiboa atxikituta edo, bestela, bideorako lotura bidalita). Hiru bideo onenentzat saria, talde-afaria egongo da.





Miren Narbaizaren kontzertua MUTRIKUN


Zapatu gauean, 22:30ean, Miren Narbaiza kantariak 'MICE' proiektu berria aurkeztuko du Mutrikan, Gaztetxean emango duen kontzertuan. Urteak eman ditu eibartarrak proiektu ezberdinetan eta orain, MICE izenarekin, zortzi kantuz osatutako diskoa kaleratu du. Bakarlari bezala kaleratu duen lanean, atmosfera ilunak, distortsioak eta tempo geldoak gogoko dituela nabari da, giro arin eta argiagoko albo batera laga barik. 'Egutegi Morean' kokatutako kontzertua izango da eta sarrerak 3 euro balio du.



The Reverend Shawn Amos ERMUAN

Zapatuan, 20:00etan blues kontzertua hartuko du Ermuko Lobiano kulturuneak, The Reverend Shawn Amos taldearen eskutik. The Rev Los Angelesen sortu zen 70eko urtealdian, musikaren legendar dauden Marvin Gaye eta Quincy Jonesen uberan, eta gisa guztietako kale-kantariaren kutsamenean. Wally "Famous" Amos eta Shirleey May R&Beko kantariaren semea dugu Shawn eta, zer bestela, musikari profesionala da heldutasunera iritsi zenetik.

eguraldia (EUSKALMET.NET)



hildakoak

- Amadeo Pintado Martin. 83 urte. 2018-III-8.
- Agustin Bustinduy Garate. 53 urte. 2018-III-10.
- Paula Lamarain Astigarraga. 94 urte. 2018-III-11.
- Francisco Postigo Teruel. 70 urte. 2018-III-12.
- Antonio Barea Gacio. 88 urte. 2018-III-12.

jaiotakoak

- Irai Sanchez Ibeas. 2018-III-3.
- Ibai Alberdi Azurmendi. 2018-III-8.
- Malen Gimeno Juaristi. 2018-III-8.
- Mara Moreno Campos. 2018-III-8.
- Ibai Feijoo Luque. 2018-III-9.

farmaziak

- Barixakua 16
EGUNEZ Iraundegi (Calbeton, 19)
- Zapatua 17
EGUNEZ Mendinueta (Urkizu, 6)
- Domeka 18
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberria, 7)
- Astelehena 19
EGUNEZ Zulueta (San Agustin, 5)
- Martitzena 20
EGUNEZ Mandiola (San Agustin, 3)
- Eguaztena 21
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberria, 7)
- Eguena 22
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
- Barixakua 23
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)

GAUEZ BETI -2018AN-
Lafuente (Sostoatarren, 10)

SUDOKUA

AURREKOAREN
EMAITZA

2	9	5	1	3	4	8	6	7
6	4	7	2	9	8	1	3	5
1	3	8	6	7	5	2	9	4
9	8	2	5	6	7	4	1	3
5	7	4	3	1	9	6	2	8
3	1	6	8	4	2	5	7	9
7	5	9	4	2	6	3	8	1
4	2	1	7	8	3	9	5	6
8	6	3	9	5	1	7	4	2

		5			1		3	
1				4		9		
		3	9		5	8		
	3					4	5	
8								2
	5	7					8	
		1	6		7	2		
		8		9				1
	6		1			3		

telefono jakingarriak

- SOS deiak.....112
- Pegora010
- Udaletxea943 70 84 00
- Portalea943 70 84 39
- Udalzaingoa.....943 20 15 25
- Mankomunitatea.....943 70 07 99
- Debegesa943 82 01 10
- KIUB943 20 38 43
- Epaitegia943 03 34 00
- Iberdrola.....901 20 20 20
- Naturgas.....902 12 34 56
- DYA Larrialdiak943 46 46 22
- Gurutze Gorria.....943 22 22 22
- Mendaro osp.....943 03 28 00
- Anbulategia.....943 03 25 00
- Torrekuia943 03 26 50
- Errepideak.....902 11 20 88
- Ertzaintza943 53 17 00
- Eusko Tren.....902 54 32 10
- Lurraldebus900 30 03 40
- Pesa900 12 14 00
- Taxiak943 20 30 71
-943 20 13 25
- Alkohol.Anon.....629 14 18 74
- Al-Anon/Alateen.....650 26 59 63

Barixakua 16

EIBARKO KANTUZALEAK

17:00. Abesbatzaren kantu emanaldia. San Andres egoitzan.

Zapatua 17

VIII. LORE AZOKA

09:00/14:00. Udalak eta Debemenek antolatuta.
11:30. Tailerra. Urkizun.

MINTZODROMOA

10:00. "Eibarko emakumeak: izan direlako gara". Jarraian, performancea, Nerea Ariznabarreta eta Maialen Belaustegiren eskutik. Udal-arkupeetan.

PROEGA EGUNA

11:00. La Salle Isasiko Proega GKE-ren aldeko jardunaldia: umeendako jolasak, bidezko merkataritza... Untzagan.

ASTELENA HAUR PARKEA

11:00/14:00 eta 16:30/20:30. 2-12 urte bitarteko umeentzat. 3 euro (doan EMGI-ko txartelarekin). Astelena frontoian.

MANIFESTAZIOA

12:00. Pentsio duinen alde, Eibarko jubilatua eta pentsionisten plataformak deituta. Untzagatik abiatuta.

ANTZERKI JARDUNALDIAK

17:00. "Ulisesen bidaia" (Teatro Gorakada). Coliseo antzokian.

BISITA GIDATUA

17:00. Doakoa (euskeraz).
18:30. Doakoa (gazteleraz). Armagintzaren Museoa.

ESKULANAK

17:30. Umeendako (Pitiflú). Doan. El Corte Inglesean (ekitaldi aretoan).

KIROLA FAMILIAN

17:30/19:30. Ume eta gurasoentzat jolasteko gunea (2-5 urtekoentzat). Ipurua kiroldegian.

Domeka 18

TXIRRINDULARITZA

09:00. Emakumezkoen lasterketa. Antolatzailea: Eibarko Txirrindularien Elkarte. Irteera eta helmuga: Untzagan.

ZUHAITZ EGUNA

09:30. Klub Deportiboan elkartzea.
09:30/10:30. Ibilbidea (denek elkarrekin), 1'5 km oinez, Iturburu ikastola aldameneko Eztiagaraino (oinetz joaten ez direnak, zuzenean joan beharko dira, 10:30erako).
10:30/12:00. Tailerra eta zuhaitzak landatzea.
12:00/13:00. Hamaiketako.
13:00/14:00. Eibarrera jaista.

URTEKO BATZARRA

12:00. Urtean zehar hil diren Goi Argi emakume elkarteko bazkideen aldeko meza. San Andres elizan.
18:30. Urteko batzarra, opariaren zozketa, Goruntz abesbatzaren emanaldia. Goi Argin (T. Etxebarria, 19).

KONTZERTUA

12:30. Usartza txistulari taldearen kontzertua. Udaletxeko arkupeetan.

ANTZERKI JARDUNALDIAK

17:00 eta 20:30. "Fabricando ilusiones" (Fábrica de magos). Coliseoan.

KIROLA FAMILIAN

17:30/19:30. Ume eta gurasoentzat jolasteko gunea (2-5 urtekoentzat). Ipurua kiroldegian.

Astelehena 19

ANTZERKI JARDUNALDIAK

20:30. "Isabelita la Miracielos" (Narruzko Zezen). 5 euro. Hezkuntza Esparruan.

Martitzena 20

IKASTEN

10:00. "Gizakien jakinmina eta bizi-poza" hitzaldia, Jexux Mari Mugika, EHUko Donostiako Sto.Tomas Lizeoko Filosofia eta Etika irakaslearen eskutik. Armeria Eskolan.

IKASTEN

16:00/19:00. Punto-tailerra.
17:00/20:00. Joskintza-tailerra. Portalean.

TAILERRA

18:00. Munduko janariaren tailerra: Maroko (kous-kous) ...eta kitto! Elkarrearen eskutik. Portalean (sukaldean)

AURKEZPENA

19:00. Gure Esku Dago-ren ekimenez ekainaren 10ean osatuko den Giza katea aurkezteko ekitaldia. Portalean (areto nagusian).

Eguaztena 21

IKASTEN

08:12. Ibilaldia: Donostiako Itzulia (Martutene-Alto Miramon). Bazkaria eraman. Trenaren irteera ordua Ardantzatik (08:14 Estaziñotik).

DOKU-FORUMA

19:00. "Etxeko langileak. Lan duinerako baldintza duinak", Alternatibak antolatuta. "Cuidado, resbala" dokumentalaren proiektzioa eta, ondoren, eztabaida. Portalean (areto nagusian).

IKUS-ENTZUNEZKOA

19:00. "Eibar neguan 2017-2018", Periko Iriandoren eskutik. Klub Deportiboan.

EIBARKO KANTUZALEAK

19:00. Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokaletan.

URTEKO BATZARRA

20:00. Peña Txinberaren batzarra. Peñaren lokaletan.

ANTZERKI JARDUNALDIAK

20:30. "Sherezade eta tipularen azalak" (Vaiven). Hezkuntza Esparruan..

Eguena 22

IKASTEN

10:00. "Inmigrazioa Eibarren" hitzaldia, Xabier Aierdi soziologoaren eskutik. Armeria Eskolan.

KALEETAN KANTUZ

17:00. Dantza (beheko maila).
18:00. Dantza (maila altua).
19:30. Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokaletan.

MAHAI-INGURUA

18:30. "Kirola eta euskara". Antolatzaileak: Eibarren Akebai eta Eibar K.E. Hamaika Berbaldi-ren barruan. Ipuruan.

ODOL-EMATEA

18:00. Odola emateko saioa, odol-emaileentzat. Anbulatorioan.

HITZALDIA

19:00. "Montañas de libertad", Carlos Suárezen eskutik. Klub Deportiboaren Mendi Jardunaldien barruan. Portalean.

Erakusketak

Martxoaren 25era arte:

– EINER RODRIGUEZ.
(*Untzaga Jubilatua Etxea*)

Martxoaren 28ra arte:

– "MARTXOAK 8 EIBARREN".
(*Portalea*)
– "ARTESTURA FEMINISTAK".
(*Portalea*)
– "GAZA AMAL, GAZAKO ZERRENDAKO EMAKUME AUSARTEN ISTORIOTXOAK".
(*Portalea*)

Martxoaren 31ra arte:

– JAVIER ORTIZ MORENO.
(*El Ambigú*)
– PEDRO ARRIOLA.
(*Portalea jatetxea*)
– ORTZADAR ARGAZKI TALDE.
(*Depor taberna*)
– JOSE LUIS IRIGOIEN.
(*Tolosako Illargi*)

Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da ...eta kitto!-n. Hemendik aurrera zorion-agurra etakitto.eus webgunean ere argitaratzeko aukera daukatzue. Prezioak bertan kontsultatu ditzakezue.



Zorionak, MARTINI!, domekan 3 urte beteko dozuz-eta. Besarkada eta musu haundi bat famelixaren eta, batez be, Hinasen partez.



Zorionak, AINARA, bixar 11 urte beteko dozuz-eta. Musu haundi bat Eibarko aitxita eta amamaren partez.



Zorionak, ANE Atxa Luis, gure printzesa, atzo 6 urte egin zenduaz-eta. Etxekuen eta, batez be, Xabi eta Mararen partez.



Zorionak, AMAIA, gaur gure txikitxok 4 urte betetzen diitu-eta. Musutxuak famelixa guztiaren eta, batez be, Ixoneren partez.



Zorionak, ELENE, etxeko poxpolintxo! Atzo 4 urte! Ez galdu irribarre polit hori! Patxo erraldoi bat danon partez.



Ongi etorri, IBAI!, hillaen 8tik Uxue arreba nagusi bihurtu dozu-eta. Zure guraso eta famelixaren partez, millioi bat musu!!



Zorionak, AMAMA, haraiñegun urtiak bete zenduazelako, eta TELMO, 20xan 3 urtetxo egingo dozuz-eta. Besarkadia eta laztan haundixak etxekuen partez!!



Hillaen 10ian gure señorita LOREA 11 urte egin zittuan eta 19xan gure fenomeno GALDERrek 7 egingo ditte. Zorionak famelixaren partez.



Zorionak, SARE, gaur 8 urte bete dozuz-eta. Ondo-ondo pasa eguna! Etxeko guztien partez.



Zorionak, TELMO!, bixar 7 urte beteko dozuz-eta. Musu asko famelixa eta Enekoren partez.



Zorionak, PELLO, mutil haundi, haraiñegun urtiak egin zenduaz-eta. Patxua famelixaren eta, batez be, Nilen partez.

Zorionak, UXUE eta NEREA, hillaen 19xan 5 urte beteko dozuz-eta. Musu haundi bat etxekuen partez.



zinea Coliseoan

(1 ARETOAN)
17an: 17:00, 19:45, 22:30
18an: 17:00, 20:00
19an: 20:30 (antzokia)

"Yo, Tonya"
 Zuzendaria: Craig Gillespie



(2 ARETOAN)
17an: 19:45, 22:30
18an: 20:00
19an: 20:30

"La forma del agua"
 Zuzendaria: Guillermo del Toro



(1 ARETOAN)
17an: 19:45
19an: 20:30

"Handia"
 Zuzendaria: Jon Garaño



(2 ARETOAN)
17an: 17:00
18an: 17:00

"El reino de las ranas"
 Zuzendaria: Kuniyiko Yuyama



i Atal honetako iragarkiak **doan** dira, etxean, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratuko dira.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

1. Etxebizitza

1.1. Salgai

- Pisia salgai Santo Domingo erdialdean. Bista onak. Konpontzeko. Tel. 699-960037.
- Pisia salgai Elgetan. 3 logela, sukaldelagangela, 2 komun, despentsa, ganbara eta terraza. Teilatua, fatxada eta leiho berriak. Kalefakzioa. Tel. 695-743398.
- Baseria salgai Mutrikan, terrenoarekin. Tel. 676-420846.
- Babes Ofizialeko pisua salgai Barakaldo kalean. 3 logela, 2 komun, garajea eta trasteroarekin. Jantzita. Bizitzera sarzteko moduan. Tel. 600-752732.

3. Lokalak

3.2. Errentan

- Lokala alokagai Amañan, T. Anitua 10ean. Gazteentzako aproposa. Tel. 696-996175.
- Lokala alokagai Ubitan. 70 m² eta 150 m². Bulego, biltegi eta tailer txikiarentzat aproposa. Kalerako irteera zuzenarekin. Tel. 617-688311.
- Garajea alokagai Legarre-Abontzan. Tel. 617-688311.
- 33 m²ko lokala alokagai. Guztiz jantzita. 290 euro, negoziagarriak. Urtebeterako gutxienez (hiru hilabete doan). Tel. 688-678934.

4. Lana

4.1. Lan bila

- Emakumea eskaintzen da goizez nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 634-446252.
- Emakumea eskaintzen da goizez etxeko lanak egiteko, nagusiak zaintzeko eta sukalde-laguntzaile jarduteko. Tel. 630-065397.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Ordu-tegi malgua. Tel. 631-414947.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 602-852095.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 671-763558.
- Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta umeak zaintzeko. Tel. 687-114707.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 603-694244.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta sukalde-laguntzaile jarduteko. Tel. 678-814941.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, sukalde-laguntzaile jarduteko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 640-683398.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Ordu-tegi malgua. Tel. 602-844282.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 632-726941.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Esperientzia. Tel. 631-258718.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 679-946934.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 665-441723.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 631-924214.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Tel. 675-965130.
- Emakumea eskaintzen da umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 605-598999.
- Emakumea eskaintzen da arratsaldetan nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 664-357381.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Ordu-tegi malgua. Tel. 612-264014.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 663-470706.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 612-482203.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 632-835745.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko etxean zein ospitalean. Ordu-tegi malgua. Tel. 632-949742.
- Neska eskaintzen da 09:00etatik 16:00etara nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Erizain tituluduna eta autoarekin. Tel. 664-111715.
- Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Esperientzia luzea. Tel. 643-467326.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (formazioarekin) eta sozietateak garbitzeko. Tel. 671-989434.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, garbiketarako egiteko, jatorduak prestatzeko eta gela-zerbitzari lanetarako. Tel. 640-696214.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 631-988471.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta tabernetan jarduteko. Tel. 633-101852.
- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta animaliak ateratzeko. Esperientzia. Tel. 642-827097.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Orduka. Tel. 633-401678.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Esperientzia. Tel. 667-060292.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 602-389301.
- Neska eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. Orduka. Baita asteburuetan ere. Tel. 652-668877.
- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta baserrian lan egiteko. Esperientzia. Tel. 603-406827.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 631-297089.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 626-407923.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 631-506763.
- Mutila eskaintzen da etxeko edo pisuak konpontzeko edo margotzeko. Tel. 678-112785.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Externa. Erreferentziak. Tel. 600-840833.

- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 678-112785.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita gauzez ere. Esperientzia. Tel. 628-529252.
- Neska eskaintzen da arratsalde nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 638-338816.
- Gizonezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta baserrian jarduteko. Tel. 674-579736.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 631-316890.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 631-406177.

4.2. Langile bila

- Emakumea behar da nagusia zaindu eta etxeko lanak egiteko. Interna. Tel. 607-540772.
- Ilea zaintzaile behar da asteburuetarako Eibarko ileapaindegi batean. Tel. 943-201853.
- Gizona behar da asteburuetan eta jai-egunetan alzheimerria duen nagusia zaintzeko. Tel. 633-364377. Laura.
- Kamarera/o behar da taberna baterako. Esperientziarekin. Tel. 620-246953.

5. Irakaskuntza

5.2. Eskaintzak

- Ingeniaritza Mekanikoko ikasleak klase partikularrak ematen ditu. DBH eta Batxilergo ikasleentzat. Tel. 672-382451.
- DBH eta Batxilergo klase partikularrak ematen dira. Talde txikiak. Goiz eta arratsalde. Tel. 685-739709.
- Ingeleseko klase partikularrak ematen dira, eskola errefortzu moduan edo azterketa ofizialen prestakuntzarako. Banaka edo talde murriztuak. Tel. 660-433571.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika, etab.-eko klaseak ematen dira. Banakako klase egokituak edo 2-3 ikasleko taldekoak. Goizez ikasteko aukera. Tel. 677-592509. Alberto.

6. Denetarik

6.1. Salgai

- 0'90eko sukaldela salgai, gas-bonbonak eramatekoarekin. Baita 0'90eko ohe artikulatua ere. Berriak. Tel. 617-688311.
- Binilozko diskoak, singleak eta LP-ak erosten ditut. Tel. 688-624326.

6.3. Galdu/Aurkitu

- Viceroy eskumuturreko galdu nuen domekan Ipurua inguruan. Balore sentimental handia du. Tel. 660-840246.
- Aurreko barixakuan Pupu pampina aurkitu nuen San Andres eliza ingurutik. Tel. 605-759774.

AITAREN EGUNA

LASER DEPILAZIOA

**NAHI DUZUNA
DEPILATU**

%50 eko
deskontua

GORPUTZEKO EDOZEIN TOKITAN

*5 saiorako bonoa erosten baduzu

Emakumezkoentzat

besapeak edo
izterondoak

*5 saiorako bonoa
erosten baduzu

19€
saioa*

Promozio bietan

lagun bat
ekarri ezkeru

*Beti ere, bezero
berria bada eta
tratamendua erosten badu.

20€^{ko}
deskontua*

PROMOZIO BALIOGARRIAK
Martxoaren 16tik 24ra

ASTELEHENETIK OSTEGUNERA
09:30-13:30 / 16:30-20:30

OSTIRALETAN
09:30-20:30

LARUNBATETAN
09:30-13:30

www.tacto.es
EGO GAIN, 13

943 35 84 87

berbetan



Euskera praktikatzeko eta
elkarbizitzarako taldeak

Ahozko euskera hobetu nahi duzu?

Euskeraz hitz egiteko lotsa gainditu nahi duzu?

Hemen aukera:

parkean

kirola egiten

taberna batean...

Zuk aukeratu non eta noiz
Talde jatorrak eta
giro informala

Doan!



Informazioa: 943 20 09 18

Eta euskalduna bazara eta praktikatu nahi duenari lagundu nahi badiozu eman izena zuk ere!

Hyundai SUV Gama. Zuk aukeratutakoa.



TUCSON 17.900€tik aurrera

SANTA FE 26.715€tik aurrera

KONA 13.990€tik aurrera

Dagoeneko zure mugak ginditu, handia den zerbaitekin bat egin eta intentsitatez bizi zaitezke. Eta, horrez gain, zelan egin nahi duzun aukeratu dezakezu Hyundairen SUV Gamak eskaintzen dizkizun aukeren artean. Puntakoena aukeratzekotan, KONA Berrira aukeratu duzu. Estiloak, konektibitateak eta abangoardiako diseinuak inspiratuko zaitue edonora joanda ere. TUCSON Hyundairekin jokabide, diseinu eta prestazioen artean konbinaketa biribila erakusten duen modeloaren arrakastarekin gozatuko duzu. Eta, azkenik, handiena, SANTA FE Hyundai: sofistikazioa, espazioa eta luxua azken detaileraino. Zuk aukeratutakoa da.

OARSO CAR
HYUNDAI KONTZESIONARIO OFIZIAL BERRIA GIPUZKOARAKO
WWW.OARSOCAR.COM

ELGOIBAR
OIARTZUN
Lintzirin Poligonoa, 1
943 49 48 30

Olaso Polig., 17
BEASAIN
Errepide Nazionala, 1
943 80 40 54

943 74 14 80
IRUN
Juan Thalamas, 43
943 63 97 69



TUCSON Hyundai Gama: CO₂ emisioak (gr/km): 119-175. Kontsumo mistoa (l/100km): 4,6 - 7,5. SANTA FE Hyundai Gama: CO₂ emisioak (gr/km): 149-174. Kontsumo mistoa (l/100km): 5,7 - 6,6. KONA Hyundai Gama: CO₂ emisioak (gr/km): 117-153. Kontsumo mistoa (l/100km): 5,2 - 6,7.

PSP gomendagarria Penintsulan eta Balearretan TUCSON 1.6 GDI 96,4 kW/131CV 4X2 BLUE2 ESSENCE (17.900€), SANTA FE 2.0 CRDI 150 CV (110,4kW) 4X2 ESSENCE 7 jarleku (26.715€) eta KONA 1.0 TGD 120CV (88,3kW) 4X2 ESSENCE (13.990€) autentizat. BEZ, garrailoa, matxulazio-zerga, sustapeneko deskontua, partikularrentzat, Banco Cetelem S.A.U.-ren bitartez, 13.000€ gutxienez, 36 hilabeteko gutxieneko epean eta 36 hilabeteko gutxieneko egonaldiarekin TUCSON-en kasuan, 16.000€ gutxienez, 36 hilabeteko gutxieneko epean eta 36 hilabeteko gutxieneko egonaldiarekin KONA-ren kasuan, eta 12.000€ gutxienez, 36 hilabeteko gutxieneko epean eta 36 hilabeteko gutxieneko egonaldiarekin KONA-ren kasuan. Finantziazioa finantza-erakundeak aztertu eta onartu behar du. Eskaintza 2018/06/30era arte da baliozkoa. Irusten diren modeloak: TUCSON Style, SANTA FE Style eta KONA Style. Mantentzeak ibilgailuaren finantziatzaieri lotuta. * Hyundai Motor España S.L.U.-k bere bezeroei eskaintzen dien km mugarik gabeko 5 urteko berme komertziala Hyundai-ren sare ofizialak salduko Hyundai ibilgailuei soilik aplikatuko zaie, zerbitzu-pasaporteen baliidatzen arabera. Kontsultatu itzazu eskaintza, mantentzeak eta bermearen baldintzak Hyundai kontzesionarioen sarean edo www.hyundai.es web-orrian.

J. Etxeberria, 13

943 700 230



R.P.S. 253/14



10. urteurrena zurekin ospatzen



MOZTU ETA AURKIZTEKO BALEA

% **20** ko

DESKONTUA
gure produktu guztietan

Apirilaren 30era arte baliogarria